

TOKIKOM

2015eko apirila | 147. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria



Udal hauteskundeak

KARTZAROT TALDEA JON RICA DERIOKO JAIK ZAMUDIOKO JAIK



EUSKAL ASTEA

Zamudio 2015

BAGARA!



maiatzak 4, astelehena

EUSKAL-PRENTSAREN HISTORIA LABURRA

Argazki erakusketa, **FERNAN** eta **AMA3** tabernatan, jarriko da hilabete guztirako



maiatzak 5, martitzena

19:30: XVI. KANTA IKASTAROA

ITSASO ARRIETA, Dorretxean

maiatzak 7, eguena

20:00: POESIA ERREZITALDIA, MIREN AGUR MEABE,
"Bitsa eskuetan"

maiatzak 8, barikua

19:00: PIRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS,
"Txo mikmak txikia" Kiroldegian



maiatzak 9, zapatua

10:00: IBILALDI DIDAKTIKOA UMEENTZAT

ZAMUDIO ZURE HERRIA EZAGUTU

12:30: PILOTA partidua ARBOLANTXA

pilota eskolaren eskutik, **"III. ZAMUDIOKO BURUZ-BURUKO TXAPELKETA"**

20:30: KANTALDIA, AIRE AHIZPAK, Dorretxean

maiatzak 10, domeka

9:00: "ZAMUDIO, ZURE HERRIA EZAGUTU"

XVI. MENDI IBILALDIA, Plazatik hasita

ARROETA mendi taldeagaz batera antolatuta





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Joseba Zarate, Jasone Astola, Idoia Andres, Gaizka Peñafiel, Roberto Gómez, Oihane Goienetxe, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Saltzuerdizte
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



12 Kartzarot taldeko azken diska



34 San Isidro Derioko jaiak



38 Zamudioko Pazko jaiak

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Irudietan... Gure esku, Txorierrin**
- 12 Kartzarot taldeko disko berria**
- 14 Gaztea eta... Jon Rica errugbilaria**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Korrontzi dantzan**
- 19 Udal hauteskundeak**
- 34 San Isidro Derioko jaiak**
- 38 Zamudioko Pazko jaiak**
- 42 Berbalagunen txokoa... Txaro Bilbao**
- 44 Sukaldaritza**
- 45 Denborapasa**
- 46 Agenda**

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zuretzko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

elekma

UPRATZEAREN BAT DUTEN ETATZETREKINA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETATZETREKINA ELEKTRIKO TROKAK

lehenengo markak • Prezioak onak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierrin etorbidea, 25/3 N • 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOTTI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com



JASONE ASTOLA ELORRIAGA
(Irakaslea)

Barreaz hitz egitera natorkizue gaurkoan. Izan ere, bizitzako osagai dugu irria, kide iheskorra, ordea, sarri askotan, baina behar beharrezkoa eta onuragarria gure osasunerako. Zergatik eman garrantzia barreari, bada?

Definizioz, umore ona nagusi den egoeren zein momentuen aurrean giza-kiok dugun erantzun biologikoa dugu barrea. Ahoa nahiz aurpegiko beste zenbait atal mugituko ditugu barre egiteko

Kar, kar, kar

eta nork bere soinua sortzen du barre egitean, soinu berezia; zaila edo ezinezkoa da, beraz, barre bera duten lagun bi aurkitzea.

Barre egiteak onura ugari dakarzkigu, zalanza barik. Barreak eragin sendagarria duela diote aditu askok. Gogora dezagun, barre egitean, gure gorputzeko lauhun muskulu inguru aktibatzen ditugula. Barre-algarak bihotza indartu, arnastea hobetu, endorfinak jariatu, digestioa arindu eta harreman afektiboak sendotzen ditu, bestek beste. Estresari aurre egiteko, esaterako, baliabide ezin hobea da, eta nork ez du estresik jasaten gaur egun?

Barrea eta umorearen garrantziaz konturatu zirenen artean Freud neurologoa aipatuko dizuet. Eragin negatiboa askatzeko, barre egiten zuten bere saioetan. Urte batzuk beranduago, zenbait ikerketa zientifiko egin ondoren, Freudek egiten zuena estresa askatzeko

oso ona dela konturatu dira, gure kortexak karga elektriko negatiboak libratzen baititu barre egin ondoren. Dena den, ez da gaur egungo aurkikuntza; izan ere, duela 4.000 urte, txinatar tenpluetan osasun arazoak zituzten pertsonak bildu eta barrea erabiltzen baitzuten beraien arazoak konpontzeko.

Barrea, estresa arintzeko izateaz gain, hobeto sentitzeko ariketa ere bada. Besteak beste, erlaxatzeko, kreatibitate handiagoa lortzeko, eta beldurrak zein depresioak desagerrarazteko erabiltzen da. Helduok, baina, haurrek baino barre gutxiago egiten dugu; barrearen onurak zeintzuk diren jakinda, oster, horrek ez luke horrela izan beharko.

Ez da beharrezkoa, hala ere, barrez itotzea barreak mesede egin diezagun. Sarri, irribarrea, irriño samurra, nahikoa da ingurukoak alaitzeko, beti ere benetako bada.

Egin diezaiozun barre geure buruari, egin dezagun barre elkarrekin eta opartu diezaiozun irribarre gozoa lagun hurkoari, debaldekoa da eta.

Abdikazinoa

Txorierri menditarte mendiz inguratuta daukagu, ez dira mendi altuak, baina geureak dira eta lotura handia euki izan dogu beti harekaz. Sarri mendi hareei begira lotu eta ikusi barik paretan gara. Natureari probetxua atara gura deusagu, baina bertoraino ailegetako sarritan laguntza behar.

Nor ez da, txitean pitean, mendira joan lagunakaz, zetan hatan? perretxikotan, argazkitan, egundoko ideak azaleratzera edo, beste barik, naturan umeakaz disfrutatzen. Umeak dinogunean, etxeetako errege-erreginen aurrean pareta gagoz, baina, azkenengoetakoa ikusita



JOSEBA ZARATE SOLOETA
(Txorierriko Udal Euskaltegiko zuzendaria)

pentsau leiteke "abdikazinoa" egon dala, eta etxeetako errege-erregina barriak, txakurrakaz trukau. Txakurrak dinogunean, etxeetako diralako aitatzen doguz, zakurrak, oster, apegorik ez daukagula argi ikusten da. Bada, zakurrez inguratuta egon gintzazan, mendira joandako akabuko egunean, esan leiteke, akaso, bikote gazte batzuen kontua izan leitekeela, baina, edozelango familia unidade izan ziran berton; bikote gazte bakarrak, taldeka, edadekoak solte, koadrila handitan... ume bakarrak geureak.

Kargua hartuizue, hemen be ez daite la abdikazinoarik egon eta disfruta daigun danok baita txakurrek eta umeek be batera mendiakaz.

Ah! Eta euskeraz!

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitortza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

BOLALEKU
JATETXEA
Granditza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Joratu Facebooken

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Club Hipico Aretxalde
Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa
Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKORI-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Behingoz gure trena, metroaren "B" zonaldera

Eskertzekoa, eta interesgarria, pasa den alean Aikor! aldizkariak Txorierriko tren-zerbitzuan izango diren aldaketek informatzeko eskainitako zutabe laburra. Firutik tiraka, Euskotrenen webgunean prentsa-ohar moduko bat topatu dut (*), eta horko alde deigarri bat komentatu nahi nuke. Izan ere, hamar joanaldiko bonotxartel berri bat sortzekoak dira, paperezkoa antza, Txorierritik Bilbo osora bidaiatu ahal izateko, orain San Nikolasarainoko joanaldiak balio duenagatik (1 €).

Baina, Euskotrenen oharak aditzera ematen duenez, azken asmoa izanik gure tren-zerbitzua metro-sarean txertatzea metroaren 3. linea sortzeko, askoz praktikoagoa eta errazagoa da Txorierriko geltokiak metroaren "B" zonaldean sartzea oraintxe hasita, obrak amaitu arte itxaron gabe. Horrela, Barik erabilita, Bilbora Txorierritik joateak Getxotik eta joateak bezainbeste balioko luke



(0,99 €, **), bonotxartel hipotetikoaren joanaldiko prezioan ia-ia. Gainera, ez legoke zertan hamar joanaldi kolpetik erosi behar, paper piloa aurreztuko litza-teke, eta bidaiariok buruko min bat gutxiago izango genuke.

Bestalde, aspaldiko diskriminazio bat ezabatuko genuke bide batez: gaur-gaurkoz, Barik erabilia Indautxura Algotatik 0,99 € dira, Urdulizetik 1,10 €, baina Sondikatik $(1+0,82) \times \%80 = 1,46$ €. Hauteskunde-sasoirako erronka polita, gure agintari bihurtu nahi zein izaten jarraitu nahi dutenentzat.

Unai Ugalde

Asteburu solidarioa, Erandiogoikoan

Solidaritatez betetako ekitaldiak izango dituzte maiatzaren 8tik 10era arte Erandiogoikoan. Alde batetik, Gurari elkarteak jai solidarioa antolatu du. Barikuan "Guatemalako umeak" hitzaldia emango da 19:00etan, Gizarte etxean. Zapatua egun nagusia izango da eta besteak beste, kalejira, umeentzako jolasak, bazkaria, bingoa eta mus txapelketa, karaokea eta erromeria egongo dira. Ekintzoi goizeko 10etan eman-go diete hasiera eta zapatuan zein domekan azoka bat ere ipiniko da udaletxe zaharrean. Batzen den dirua Guatemalara bidaliko da eta han garatzen dabilen Beluba Luba Furendei (ikasteko etxea) proiektuetara bideratuko da. Proiektu horrek hango umeek eta gazteek jasotzen duten hezkuntza hobetzea du helburu.

Bestalde, Ortzi herri kirol taldeak martxa solidarioa antolatu du maiatzaren 10erako. Martxa luzea zein ibilbide laburra egiteko aukera egongo da. Izena ematea doan da bietan, baina antolatzaileek eskertuko lukete, parte-hartzaile bakoitzak kilo bat janari ez galkor eramatea. Martxa luzea 8:00etan hasiko da eta laburra, 9:30ean. Hobi txiki-ko txapelketa ere egongo da, azoka, puzgarriak, txinbera lehiaketa, indabak dastatzea eta argazki erakusketak. Batzen den janaria, arropa eta dirua behartsuen artean banatuko da.

(*) <http://www.euskotren.eus/eu/node/3297>

(**) <https://www.metrobilbao.eus/eu/utilizando-el-metro-eu/billetes-eu/31/billete-eu/71>



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Green Deal
Txorierrri
805 475

Rocío Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Mitxino 6. behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.txorierrri.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio de Origen



Geltziotza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

GOXO-GOXO LOHITZUN

Astribeldex zabalik
Ogile egutero
Pastelak onbrezuz



Garaioitza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Gazte Eguna, Zamudion



Aurtengoa urte berezia da Zamudioko gazteentzat, Inisitue hango gazte asanbladak 20 urte bete dituelako. Urteurrenaren haritik hainbat ekitaldi antolatu dituzte urte osoan zehar egiteko, baina ekintza nagusiak apirilean izan dira. Hala, apirilaren 10ean gaztetxoei zuzendutako

ekintzak egon ziren eta hurrengo egunean, zapatuan, Gazte Eguna ospatu zuten. Txupinazioa goizeko 10etan bota zuten eta handik aurrera ekintzaz betetako eguna eduki zuten. Gazte eskaintza, lokal autogestionatu baten inguruko iritzien trukaketa, poteoa...

Bazkaria gazteek eurek prestatu zuten eta bertan 130 lagun batu ziren. Bazkaldu ostean, olinpiadak, elektrotxaranga eta gaztetxea errebindikatzeko ekitaldi berezia, eskola zaharretan. "Oso hunkigarria eta motibagarria izan zen benetan. Gazte altxa, hasi da iraultza kantatzen hasi ziren han bildutakoak".

Kontzertuak egon ziren gauean eta, besteak beste, Txapelpunk eta Garilak 26 taldeak igo ziren eszenatokira. "Jendetza batu zen plazan, aurrekoetan baino askoz jende gehiago. Horrela, bada, momentu batzuetan, txosnan larri ibili ginen hainbeste jenderi zerbitzatzeko. Dena dela, giro ona egon zen gau osoan zehar eta musika taldeek ere egunduko kontzertuak eskaini zituzten". Bestalde, apirilaren 14an ekitalditxoak egin zuten urteurrena haien artean ospatzeko: pintxo batzuk, berbalditxo bat eta brindisa. "Gazteen laguntza eta parte-hartzea itzelak izan dira benetan. Eskertzekoa. Hogeita hamar gaztetik gora ibili dira monitore, txandak, muntatze eta desmuntatze-lanetan... Gurea herri txikia dela eta gazte askorik ez dagoela kontuan hartuta, benetan harregarria".

Hogeita hamar urte bete dira Larrabetzuko frontoia egin zela, eta maiatzean urteurrena ospatuko dute Olarreta pilota elkarteak, Xaker elkarteak eta Udalak. Horretarako, hiru jaialdi antolatu dituzte. Lehenengoa maiatzaren 15ean egingo da, 19:00etatik aurrera. Pilotalekuan bazten direnek frontoiari buruzko 15 minutuko bideoa ikusi ahal izango dute, eta ondoren, Gaztelumendi abesbatzak saio bat eskainiko du. Geroago, herriko pilotari batzuek partida berezi bat jokatu dute. Izan ere, Itallen bertso eskolako ikasleek bertsoak tartekatuko dituzte partidaren zehar. Eguna borobiltzeko, 20:30ean, pala partida laburrak jokatu

Larrabetzuko frontoiaren 30. urteurrena



dira eta, formatu amerikarrari jarraituz, ikusleek apustuak egiteko aukera izango dute. Bigarren jaialdia maiatzaren 23an

egingo da. Goizean, 11:00etan, oroime-nezko ekitaldi batek hasiera emango dio jaieri, eta ondoren, Bizkargi dantza taldeak emanaldi txiki bat eskainiko du. Bestalde, 11:30ean pilota partidak jokatu dira, Larrabetzu eta Zornotzako pilotarien artean. Indarrak berreskuratzeko, herri bazkaria egingo da 15:00etan, eta arrastian, pala partidak jokatu dira. Azkenik, abuztuan, Andra Mari jaietan, hirugarren jaialdia egingo da herriko frontoiari omenaldia eskaintzeko. Jaialdi horretan, pilotari profesionalak arituko dira.

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

abuztuaren 15 gerta

ABOKATU-ARITZA, TALAIOA,
ALOKATZEAK, ESKALATZAK,
SALERKATZAK
SEGURAS BILBAOEN AGENTZIA

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Garmitxaren III. martxa



a: Idoia Andrés

“Garmitxaren martxa – Larrabetzutik oinez” ekintza hirugarren aldiz egin zen apirilaren 19an. Guztira 251 lagunek eman zuten izena ibilaldian, aurreko edizioetan baino gehiago. Mendizaleek plazan hasi zuten martxa eta bost kilometro egin eta gero, plazan bertan bukatu egin zuten martxa. “Oso pozik gaude, eguraldi ederra egin zuen eta egunduko giroa sortu zen herrian”, esan digute Garmitxa elkartekoek. Martxa bukatu zenean, antolatzaileek pintxoak banatu zituzten parte-hartzaileen artean. “Betiko moduan herriak bat egin du gurekin, baita Udalak eta Larrabetzuko

hainbat tabernak ere. Haiei guztiei esker-
rak eman nahi dizkiegu, eskainitako laguntzagatik”.

Garmitxa elkartearen aldeko martxa Txinpasmendi guraso elkarteak eta Garmitxa elkarteak antolatu zuten, eta egun horretan batu zen dirua alergia gastrointestinal anitzak dituzten umeen gaixotasuna ikertzera bideratuko da. Garmitxa elkarteari zuzendutako dirua batzeko asmo horrekin jarraituta, apirilaren 23an, Liburuaren Egunean, Larrabetzuko Udalak eta Larrabetzun euskaraz elkarteak liburu zaharrak jarri zituzten salgai herriko plazan. “Guztira 188 euro lortu ditugu, eta laguntza txikia ematen badu ere, guretzat oso mesedegarria da”.

a: Carenados R.R.T.

MOTORRAK, GARRASIKA

LOIUN.– Bizkaia osotik etorritako ehunaka motorzale batu ziren apirilaren 25ean, Loiun. Izan ere, Txoribikers elkarteak motorren kontzentrazioa antolatu zuen laugarren aldiz eta, eguraldia lagun, larrua eta motorrak, noski, nagusi izan ziren bertan. Giro ederra egon zen egun osoan zehar eta parte-hartzaileek auke-
ra izan zuten zenbait ekitaldiz gozatzeko, hala nola ibilbidea, bazkaria eta kontzertua.




**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldirikanak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Consulting
Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Asesuragun agentzia
Allianz
609 475 746

Mibuna, 6. bisitua
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27


auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Flamenko elkarte osatu da Derion

Piperdun Flamenko elkarte da eta sortzaileen helburua, noski, flamenkoa ikastea eta flamenkoaz gozatzea da. Aurkezpena apirilaren 11n egin zuten eta herriko hainbat taldek lagundu zioten ekitaldian: besteak beste, Tximintx euskara elkarte, Sutondoan, Derio Argazki Taldea (DAT), Lainomendi dantza taldea eta Doyan. Guztien artean dantza saio bat egin zuten eta horren ostean, txokolatada. Derioko Argazki Taldeak *photocall* bat antolatu zuen ekitaldian.

“TxorierriTQuiere”

Txorierriko 130 saltoki baino gehiago batu dira, eta Txorierri Valley-ko Merkataritza Mahaia osatu dute. Saltokiek “Txorierri Valley Merkataritza” marka bateratuarekin egin dute bat. Urtean zehar hainbat ekintza egitea aurreikusitako dute eta lehena “TxorierriTQuiere” kanpaina da, maiatzaren 13ra arte iraungo duena. Kanpaina Facebook bidez egingo da eta, bertan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean bizitzea edo lan egitea. Astero galdera bat ipiniko da elkartearen Facebooken, eta parte-hartzaileek haiei erantzun beharko diete. Parte-hartzaileen artean, 190 poltsa pertsonalizatu zozketatuko dira.



Zorionak Lainomendi!

Lainomendi Derioko dantza taldeak 25 urte bete ditu aurten eta, horren haririk, apirilaren 18an eta 19an ospakizun bereziak egin zituen Derion. Apirilaren 18an, jolasak, herri bazkaria eta erromeria antolatu zituzten, baita 25. urteurrenaren mural bat ere. “Euri zaparrada itzela bota arren, poteoa egin genuen Bertoko eta Trabudu taldeko trikitilariekin batera. Guztira 150 lagun batu ginen bazkarian, frontoian, eta horren ostean, Arizgoiti taldeak erromeria eskaini zuen. Baina hori hasi baino lehen, bateren batek kandelaz betetako tarta bat ekarri zuen ustekabek. Putz egin behar izan genuen (kar, kar)”, aipatu digute Lainomendikoek. Hurrengo egunean, sei dantza talde batu ziren eta agerraldi ikusgarria egin zuten Arteaga eraikinaren aparkalekuan. Lainomendiren batera, Algortako Agurra, Lezamako Kurutze, Zamudioko Hiru Bat, Sondikako Gorantzaleak eta Errekaldeko Arraizpe dantza taldeak aritu ziren bertan. “Hori ere oso polita izan zen. Pena izan zen Erandioko eta Bakioko taldeak etorri ezin izana, baina oso gustura ibili ginen. Asteburu oso polita izan zen eta primeran pasatu genuen. Lan handia egin genuen dena ondo antolatzeke, baina merezi izan zuen. Urteurrenaren bidez, eskerrak eman dizkiegu hainbat urtetan Lainomendiren alde lan egin dutenei eta, noski, txorierritar guztiei ere. Azken batean, eurek osatzen dituzte dantza taldeak”.

IB
Goiko kalea, 2
(sarrera Erdiko kaleak)
Derio 48160
Marimar
94 454 13 64
670 022 794
marimar999@yahoo.es

**SUSTAPIMAK
ETA
BENEFIZARIAK**

ETXEKO LAGUNTZA INTEGRALA
TRUIUONDO ZAMUDIO ZENTRO GERIATRIKOA

Arreta espezializatua, nagusiak zaintzen
adituak diren profesionalen eskutik

Hasierako
balorazioa,
DOAN

689 034 238
www.naguspea.es

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Larrasola plaza, 5
48170 Zamudio
94 453 34 49

**HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TEL.FNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerririk asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 Iorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Asua ibaia berreskuratzea aldarrikatu da Lezaman

a: Lezama Bizirik

Lezama Bizirik elkarteak Lezama Bizirik Eguna ospatu zuen apirilaren 19an. Asua ibaia ezagutzeko txango bat eta bazkari bat antolatu zituzten eta, gainera, oso egun berezia izan zen, elkarteak aurreten 10 urte bete dituelako.

Txangoan 50 lezamar batu ziren. "Hogeita hamar urte baino gehiago daramatzagu Lezaman Asua ibaia ikusi ezinik, bertoko urbanizazioak eraikitzeke, hori hormigoizko kajo batez estali zutelako", esan dute elkartetik. Haien iritziz, lezamarren ondare naturala babestu beharrean, kaltetu baino ez da egin. Eta hori garapen eta hazkundearen izenean egin da. "Ekintza honen bidez, Asua ibaia hor da goela adierazteaz gain, hori herriko ibaia moduan berreskura dadila aldarrikatzea eduki dugu helburu".

Aipatu beharra dago Lezama Bizirik elkarteak txango hori aurretik zuela egin da. Asua ibaia Lezaman zein egoeratan zegoen jakin nahi izan zuten, eta kilometro batzuk egin zituzten ibaiaren ibilgutik, Kurtzetik Ugarteraino. Azaldu zuten moduan, ura eta erriberak pentsatu baino garbiago egon dira eta aztarna batzuk topatu dituzte: harrizko zubien aztarnak, harrizko gurutze bateko oinarria eta antzinako harraska bateko harriak. Arrainak



eta ahateak ere ikusi dituzte. Hormigoizko kajoiarekin ere egin zuten topo, eta hori inolako zailtasun barik zeharkatu ahal izan zuten.

Bestalde, eguerdian, txangoa egin eta gero, elkartearen bazkideek eta lagunek herri bazkaria egin zuten Oxangoiti tabernan.

Derio, eskauten topagunea

Euskalerriko Eskautak Bizkaia taldeak urteko jaia, San Jorge, ospatu zuen Derion, apirilaren 26an. Antolatzaileen arabera, 2.200 lagun bildu ziren Ganbeko pagodian, Aldekone auzoaren alboan dauden landetan. Bizkaiko 29 eskauten taldeek hartu zuten parte. "Oso jai polita izan zen. Tamalez, igande arratsaldean oso eguraldi txarra egin zuen eta apur bat ospakizuna hondatu egin zen. Baina helburua bete dugu, gure jaia ospatu egin dugu eta pozik gaude", esan digu Egoitz Arruza Derioko abadeak eta Bizkaiko eskaut taldeko kideak.

Euskal hezkuntzaren aldeko jaiak

Jaiak maiatzaren eta ekainaren ospatuko dira: maiatzaren 10ean, Herri Urrats, Senperen; maiatzaren 31n, Ibilaldia, Bilbon; ekainaren 7an, Euskal Eskola Publikoaren Jaia, Elgoibarren; eta ekainaren 14an, Araba Euskaraz, Gasteizen. Txorierriko Mankomunitateak haie-tara joateko autobusa ipiniko du eta Mankomunitatean bertan edo liburutegietan eman ahal izango da izena. Epeak hauek dira: Herri Urrats, maiatzaren 6a arte; Ibilaldia, maiatzaren 11tik 27a arte; Euskal Eskola Publikoaren Jaia, maiatzaren 20tik ekainaren 3a arte; eta Araba Euskaraz, maiatzaren 25etik ekainaren 10a arte.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserrinako ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
**LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)**



**ASADOR
FUENTENE** berria
"lur eta itsasoko baserrin"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta



**LEKUNBI-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)**
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Zaintza partekatua, mintzagai



La Terraza elkarteak zaintza partekatuari buruzko hitzaldia eman zuen Derioko Kultur Birikan, martxoan. Carmen Serrano abokatuak eta Jorge Olivier elkarteak kideak hartu zuten parte bertan. "Dibortzioa eta berdintasuna" izenburupean, hizlariak zaintza partekatuaren gaur egungo egoera aztertu zuten. "Legeak dio ama dela garrantzitsuena; hau da, umeak amari emateko joera dute epaileek, eta hori ez da zilegi. Hainbat osagaik dute eragina zaintza partekatuan: ama, aita, gizartea, umeak... Eta haien arteko oreka lortu behar da", esan digu Jorge Olivier sondikoztarrak.

"Legeak oso astiro doaz, baina umeak, aldiz, oso azkar hazten dira. Demagun ama batek oso harreman txarra duela aita batekin, eta lau urtean debekatzen diola umea ikustea. Tarte horretan, umea ahaztu egingo da aitaz, eta bertan legeak ez du irtenbiderik eman-

"Legeak dio ama dela garrantzitsuena: umeak amari emateko joera dute epaileek, eta hori ez da zilegi"

go". La terraza elkarteak orain dela 12 urte sortu zen, eta Bizkai mailan aritzen da. Zaintza partekatua defendatzea du elkarteak helburu, eta horretarako, manifestazioak, bilkurak, hitzaldiak eta antzeko ekimenak antolatzen dituzte. Guztira, 500 bazkide daude elkartearen.

"Umeak amarekin zein aitarekin egon behar dira. Askoren ustez, oso garrantzitsua da zenbat denbora ematen duten umeek haietako bakoitzarekin, baina guk

uste dugu hori ez dela hain garrantzitsua. Kasu bakoitza aztertu behar da. Aitak eta amak eskubide eta betebeharrak berberak izatea da gakoa, hau da, biek hartu behar dituzte umei dagozkien erabakiak. Zaintza partekatuaren ez dago arau finkorik. Izan ere, bikote bakoitzak era ezberdin batean jokatu du".

Lehentasunezkoa

Jorgeren iritziz, legeak ez du zaintza partekatua "lehentasunezko kontutzat" hartzen, eta horrek "dena atzeratzen du". "Gaiari bultzada bat emateko, guztiok egin behar dugu lan: politikariak, emakumezkoak, gizonezkoak, gizarteak berak, azken batean. Umeak amarenak dira eta hori oso barneratuta dago gizartean. Gizarteak ez du uste zaintza partekatuaren inguruan premiarik dagoenik. Esate baterako, emakumeen kontrako bortizkeria pil-pilean dagoen gai bat da gaur egun, eta behin eta berriro agertzen da komunikabideetan. Ados nago, oso gai larri eta tamalgarria da, bai. Hala ere, zaintza partekatuari dagokionez aita batzuek jasotzen duten tratua ere bortizkeria da, eta gai horri, ordea, ez diote jaramonik egiten".

Legeak irtenbiderik ematen ez badu, batek baino gehiagok pentsa dezake errudunak politikariak direla, baina Jorgeren ustez, hori hain argi ikusten. "Agintariak ez dira errudun bakarrik. Politikariak ez dira bakoitza bakoitza, eta, gizarte mailan ezer eskatzen ez denez, politikariak ez dute ezer egiten. Nik laguntza eta inplikazio handiagoa eskatu nieke emakumezkoari. Tamalez, oso emakume gutxi daude elkartearen. Nire ustez, emakumezkoak benetan ahaldundu nahi izanez gero, benetako apustua egin beharko dute zaintza partekatuaren alde".

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO

SURALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkai
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETxea

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



Erabakitze eskubidearen aldeko oihalak

Gure Esku Dago ekimenak "Joste Eguna" antolatu zuen apirilaren azken asteburuan. Azken hilabeteotan erabakitze eskubidearen alde osatutako oihalak josten ibili ziren Euskal Herriko hainbat txokotan; Txorierrin ere bai. Oihalak ekainaren 21ean Baionan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean ipiniko diren hautestontzi erraldoiak egiteko erabiliko dira. Ondoan, Larrabetzun, Lezaman eta Zamudion egindako ekitaldien argazkiak dituzue; aikor.com webgunean argazki gehiago daude ikusgai. Zuek ere zuen argazkiak igo ahal dituzue webgunera, edo gizarte sareen bidez partekatu.

Argazkiak: Idoia Andrés,
Gaizka Peñafiel eta Roberto Gómez





lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultoriioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak





94 455 56 19

Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75



Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea



ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Betiko arimari eutsi deutso Kartzarotek

Taldeak *Arima ez da galtzen* lana aurkeztu eban apirilean, Satélite T Deustuko aretoan

t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

"Pozik eta gustura ibili ginan. Ia ordu biko kontzertua emon genduan eta uste dot soinu polita atera genduala. Gainera, jentetza batu zan aretoan eta sarrera eta disko piloa saldu genduan", esan deusku Asier Vicario lezamarrak, taldearen abeslaria danak.

Zazpi abestik osatzen dabe *Arima ez da galtzen* diskoa. Asierrek azaldu deuskun moduan, abestietariko hiru 90eko hamarkadaren hasieran idatzi ebezan, baina, zoritzarrez, han aztertzen diran gaiak indarrean dagoz gaur egun. Halan, *Ume gaixoa* abestian, gerren eta goseteen ondorioz, mundu osoko umeek jasaten daben egoera latza salatzen dabe; *Indartsuen erosotasuna* kantan, gazteen langabeziaren gainean egiten dabe berba; eta *7ak bateginik* abestian nazionalismoaren atomizazioaren inguruko salaketa egiten dabe. Gainontzeko abestiak azken urteotan joan dira konposaten. *Patakona* abestia Galdakaoko bidelapur ospetsuari eskainitako omenaldia da, eta

*Abestietariko batzuk
90eko hamarkadakoak
dira, baina indarrean
dagoz gaur egun*



Stop kaleratzeak kantan etxegabetzeak eta hareen inguruko problematika aztertzen dabez. *Sehaska* kanta abestian gurasoak diran heinean daukiezan kezak jaso dabez, eta *Zure deia* Watsapean kantea euren buruari egindako omenaldia da. "Kartzaroten itzuleraren historia da; eta bai, gure alde erromantikoa landu genduan bertan". Aiora Rementeria Zea Mays taldearen abeslariak eta Rafa Rueda musikariak kolaborazioa egin dabe *Sehaska* kanta abestian, baina ez dira diskoan parte hartu daben bakarrak izan. "Disko hau jai bat izan da guretzat eta han parte hartzeko gonbidapena luzatu geuntsen bai aspaldiko lagunei, bai lagun barriei. Esperientzia polita izan da".

Kartzarot taldea 1989. urtean sortu zan. Euskeraz abesten eben heavy meta-



*"Lan ona urten jaku,
80ko hamarkako heavy
metal estilokoa"*

leko bandak agertu ziran garai hatan, eta Kartzarotek bere lekua egin eban hareen artean. Hamar urteren ostean banandu ziran eta 2013. urtean barriro alkartu ziran, Lezaman 20 urte lehenago emondako kontzertu baten grabazioa ospatzeko. Gainera, Iberia Metálica diskoetxeak CD baten jaso zituan taldearen aurreko lan biak. Gauza batek bestea ekarri eban eta taldekideek entseguak berrartu zituen; antxinako abestiak landu zituen eta

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DEPIO
T: 94 602 75 25-6

AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>



esan, oso pozik gagoz emaitzagaz. Ordu pilo bat emon dogu estudioan, detaile bakotxa zaindu gura gendualako, eta estudiokoek pazientzia handia euki dabe gugaz. Lan ona urten jaku, 80ko hamarkadako heavy metal estilokoa”.

Txorierrin, hurrengo lekuetan erosi daiteke diskoa: Oxangoiti, Goxo-goxo Lo-hitzun eta Grisson (Lezama), Aretxabala (Larrabetzu); Susterrak (Zamudio); Akelarre (Derio); eta Atarrabi (Sondika). Promozio-beharrak egin behar dira orain eta dagoaneko hiru kontzertu itxi ditue: lehenengoa, maiatzaren 23an, Zamudioko jaietan; eta beste biak, Lezaman. Halanda be, Asierrek esan deusku ez dabela kontzertu asko emoteko asmorik, ezta astirik be. Kartzarot gelditzeko itzuli dan be ez daukie argi. “Kontzertu horreek prestatuko doguz, baina bien bitartean ez dakigu zer gertatuko dan. Disko hau grabau gura genduan eta halan egin dogu, baina orain batek daki... Ilusino handia dogu eta uste dogu honek jarraipena eukiko daula, baina ezin dogu esan norainokoa izango dan. Eta hobeto, horrek presinoa arintzen deuskuelako”.

kanta barriak urteten hasi ziran. Emaitzea Arima ez da galtzen lana da, Kartzarot taldearen esentziaren islea dana. “Menditik ninoiala ustelduta egoan enbor bat topau neban, baina barrukoa ukitu barik ebana. Argazki batzuk bota neutsazan diskoaren portadea izan leitekelaokan, eta momentu horretan etorri jatan izenburua. Izan be, urteak pasau diran arren, eta hori kanpotik nabaritzen bada be, geuk be ikutu barik daukagu barrukoa. Lehengo arima bera daukagu, bai gustetan jakun musikari jagokonez, bai gure kezkei, aldarrikapenei... jagokenez”.

80 hamarkadako heavya

Arima ez da galtzen autoekoiztutako diskoa da. “Beste aukera batzuk euki doguz, baina horrek baldintza batzuk onartzera behartzen gintuan, beharbada, eta diskoa % 100ean geurea izatea gura genduan guk. Bagenkian non grabau gura genduan, zein soinua gura genduan, zelako diseinua...”.

Bateria izan ezik, Grabasonic estudioan grabau zana, diskoa Sound of Apocalypse Asuako estudioan grabau da. “Heavy metala bereziki zaintzen dabe han eta horregaitik jo genduan hareengana. Egia

bonodekor
20%
diskontua

Delux lo egin,
zoriontsu esnatu.

SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

**SUITE DELUX**
.com

LEIOA
Haya 100m 111
0143 511 111

DERIO
Haya 100m 111
0143 511 111

EIBAR
Haya 100m 111
0143 511 111

t: Gaizka Eguzkitza

Noiz eta zelan hasi zinen errugbian jokatzeko?

Egin nuen lehenengo kirola futbola izan zen. Txikitan, Bizia taldean hasi nintzen jokatzeko, Lezamako ume gehienek bezala. Gero, Sondika taldera joan nintzen, baina 2010ean errugbia ezagutu nuen, DBHko bigarren mailan nengoela, eta dena aldatu zen. Mungiako jokalariei etorri ziren eskolara, errugbia irakastera eta ezagutaraztera, eta nik oso ondo pasatu nuen. Gainera, Mungiara joateko gonbitea egin ziguten, benetako entrenamendu bat egitera, eta orduan konturatu nintzen hau zela nire kirola. Erabakia argia izan zen: futbola utzi eta errugbian hasi nintzen.

Zein postutan aritzen zara? Zein taldetan ibili zara?

Nire postua erdi-melea da: taldekideei agindu behar diet zein jokaldi egin, norantz jokatu... Beste alde batetik, pilota banatu behar dut, hau da, hainbat pertsona pilotzen diren momentuan, nik pilota bertatik ateratzen dut eta taldekideei pasatzen diet. Taldekide dagokienez, Mungia Rugby Taldean hasi nintzen 13 urte nituenean. Urte bi pasa eta gero, jokalariei gutxi egon ginen eta Universitario Bilboko Rugby taldea osatu genuen. Bertan hurrengo urte bietan jokatu nuen. Iaz, Bartzelonara etorri nintzen, eta orain Barcelona Universitari Club taldean nabil. Horretaz gain, Bizkaiko Selekzioarekin jokatu dut pare bat aldiz.



“Errugbia kirola baino g

JON RICA | errugbilaria

Jon Ricak (Lezama, 1996) futbolekin jokatzeko zuten txikitan, baina duela bost urte errugbia aurkitu zuten eta, harrezkero, ezin izan du utzi. Mungiako eta Bilboko taldeetan jokatu du, baina ikasketak direla-eta Bartzelonara joan zen iaz, eta gaur egun bertako talde batean aritzen da.

“Espainia mailan, errugbia gutxien kirol bat da eta errugbilariak izateak bereizi egiten zaitu”

Zergatik errugbia? Zerk erakartzen zaitu?

Errugbia kirola baino gehiago da, beste kirolek ez duten gauza asko ditu: taldekideen arteko giro izugarria; epaile-arekiko eta aurkariarekiko errespetua; hiru garren zatia, hau da, partida amaitu eta gero taldeok zelaiko tabernan edo taldeko txokotan biltzen gara eta bertan ogitar-tekoak eta edariak hartzen ditugu parti-

daren gorabeherak geure artean komentatzen ditugun bitartean... Horretaz gain, errugbia kontaktuzko kirola da, fisikoki asko eskatzen dizu eta horrekin asko disfrutatzen dut. Gauza horiengatik guztien-gatik dut errugbia gustuko. Gainera, Espainia mailan gutxien kirol bat da eta errugbilariak izateak bereizi egiten zaitu.

Jokatzeaz gain, errugbia ikustea ere gustatzen zaizu?

Bai, noski! Errugbia ikustea ere oso gustukoa da, baina ez jokatzea bezainbeste. Normalean, internet bitartez ikusten ditut partidak, eta hainbat talde gustatzen zaizkit: Toulon talde frantziarra, Biarritz Olympique talde euskalduna, Reds talde hegoafrikarra, Munster eta Leinster talde irlandarrak... Era berean, Irlandako Selekzioa da nirea. Jokalariei buruz hitz egiten badugu, Brian O'Dris-

Bartzelonan, ikasten... eta jokatzeko

Joni izugarri gustatzen zaio kirola, eta horrengatik joan zen Kataluniara, kiroleko goi-mailako zikloa ikastera. “Kataluniara etorri nintzen eguraldia ederra delako eta nire gurasoen lagun batzuk hemen bizi direlako”. Jonen bizitzak erabat aldatu da, baina gazte lezamarra gustura dabil. “Katalana ikasi dut eta horrek lagundu egin dit hemengo bizitzara moldatzeko. Izan ere, hemen leku guztietan entzuten duzu katalana, benetan maitatzen dute euren hizkuntza. Euskaldunok berdin egin beharko genuke”.

Jon Bartzelonan bertan bizi da, klaseko bi ikaskiderekin batera, eta bere bizimodua ikasle batena da. “Klaseetara noa, gimnasiora, lagunekin kalera... Etxean egingo nukeen bizitza, baina hiri erraldoi batean eta jende berriarekin (kar, kar)”. Eta noski, errugbian jokatzeko du, BUC, Barcelona Universitari Club taldean, Estatuko Bigarren Mailan. “Errugbia hemen Euskal Herrian baino askoz ezagunagoa da eta jokalariei eta talde gehiago daude. Katalunian beste era batean jokatzeko dute eta beste era batean ulertzen dute kirol hau”.

ehiago da"

coll irlandarra da gogokoen dudana. Iaz utzi egin zion jokatzeari, baina tira... Zeelanda Berriko Quade Cooper eta Mathieu Bastareaud frantziarra ere gogoko ditut. Txapelketei dagokienez, batzuk ikusten ditut: Frantziako Liga, Heineken Cup errugbiaren Txapeldunen Liga, eta zelan ez, baita Sei Nazioen Torneoa ere. Aurten Irlandak irabazi du berriro (kar, kar...). Munduko Txapelketa ere oso ikusgarria da.

Errugbiak oso kirol bortitza ematen du, kontaktu handia duen horietako bat. Horrelakoa da benetan?

Bai, errugbia horrelakoa da, kontak-tua eta aipatzen duzun bortizkeria hori arauen barnean daude. Baina ez pentsa, kanpotik gogorrago dirudi: zelaian zaudenean kolpe gogorak egon arren, berdin zaizu, jokalariek jokatzeko jarraitu nahi dugulako. Adibidez, nire bigarren urtean, plakaketa ilegal bat jaso nuen eta klabikula apurtu zidaten. Aurkaria ni baino hiru aldiz handiagoa zen (kar, kar). Horrek ez zidan beldurrik eman: banekien ondo osatuko nintzela eta prest egongo nintzela errugbian jokatzeko jarraitzeko. Eta zorionez hori gertatu da. Horren haritik, esaldi eder bat irakurri nuen behin: futbole-lean, 11 jokalarik 90 minutu ematen dituzte lesionatuta daudela antzetzten; errugbian, aldiz, 15 jokalarik 80 minutu ematen dituzte ondo daudela antzetzten.



Unibertsitateko Ikastegia
48160 - DEFO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Maiatzaren 5ean eta 28an (18:30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika
- Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Produzioaren Programazioa goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen-Heziketa eta Kontrola goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

**Gure tailerrak eta laborategiak
ezagutzera etorri**

Familiantzako hezkidetzaz gida

Hezkuntza oinarri-oinarrizkoa da, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunik gabeko gizartea eratzeke. Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, honako hau adierazi nahi dugu: berdintasunean heztea, neskek zein mutilek euren gaitasunak garatzeko aukera izatea, eta horretarako, neskek eta mutilek, emakumeek eta gizonak izan behar dituzten ezaugarrien inguruko estereotipoak eta arrearitziak baztertzeko. Horrek dakar, bate-tik, neska eta mutil bakoitza bere ezaugarri eta bertute indibidualak balioetsiz heztea; eta bestetik, begirunez eta tolerantziarekin jokatzeko. Beraz, indarkeriari aurre egiteko bermea da.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak familiantzako gidariburu bat argitaratu du, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko. Horren haritik, jarraibide batzuk jasotzen dira dokumentuan:

–Neskek edo mutilek diren heinean, gogoan izatea nola ikusten ditugun, haiengan zer sustatzen dugun edo zelako mugak ipintzen dizkiegun.

–Jakitea zein emakume- eta gizon-eredu helarazten diegun. Zer ikasten dute gugandik eta beste emakume eta gizonengandik.

–Erabiltzen dugun hizkuntza zain-tzea, hau da, errespetuzkoa den kontuan



hartzea, ea emakumeak nahiz gizonak direna eta egiten dutena baloratzen duen, edo, aitzitik, sexuatariko bati buruz balorazio negatiboa egiten duen.

–Euren esku jartzen ditugun heziketa-baliabideei erreparatzea: jokoak, jostailuak, ipuinak... Hau da, esperimentazioa eta ikasketa bultzatzen diren, edo mugak ipintzen diren.

–Aintzat hartzea emakumeei eta gizonari lotuta dagoenari buruz egiten dugun balorazioa.

Gidariburuak ele bitan dago idatzita eta 46 orrialde ditu euskaraz; eta beste 46 orrialde, gaztelaniaz. Hezkuntza-aldia dago sailkatuta (0 urtetik 5 urtera, 6 urtetik 11 urtera eta 12 urtetik 18 urtera), eta eboluzio-aldi bakoitzean zer gertatzen den azaltzen du. Era berean, aholkuak ematen ditu aldi bakoitzerako, baliabideen berri ematen du (liburuak, jolasak...) eta familiako jarduerak proposatzen du.

Gidaren oinarriko helburuak hauek dira:

–Neskatoek eta mutikoek emakume edo gizon gisa bizitzeko modu berdingabe eta orijinala bat esperimentatzea eta adieraztea, kanpoan eraikitako ereduak errepikatu beharrean.

–Aukera eta eskubide berberak izatea.

–Bestekin harremanetan jartzea, indarkeria erabili gabe eta besteak aintzat hartuz.

–Emakumeek bizitzako eremu guztietan egiten dituzten ekarpenak gozatzea, eta gizonen zein emakumeen erreferentziak izatea.

Aleak 13 urtera arteko adingabeak bizi diren sei udalerrietako etxeetan banatuko dira. Bestalde, Txorierriko haurtzaindegietan, ludoteketan, osasun-etxeetan eta liburutegietan ere utziko dira.





Bizitzak salbatzeko desfibriladoreak

Mankomunitateko Udalek ez dituzte nahitaez instalatu behar desfibriladoreak, urtarilaren 27ko 9/2015 Dekretuak ez baitu halakorik xedatzen. Dekretu horrek desfibriladoreen ezarpena eta erabilerara arautzen du, eta, era berean, xedatzen du haiek osasun-esparrutik kanpoko erabilera publikoko gune jakin batzuetan jartzea beharrezkoa dela.

Honako hauetan instalatu behar dira: saltoki handiak; merkataritza-aireportuak eta -portuak; 50.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietako autobus-eta tren-geltokiak, eta egunean batez beste 2.000 pertsona edo gehiago garraiatzen duten metro-, tren- edo autobus-geltokiak; 700 pertsona baino gehiago hartzeko baimenduta dauden establezimendu publikoak, instalazioak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak; guztira 2.000 pertsona edo gehiago har ditzaketen ikastetxeak.

Hala eta guztiz ere, sei Udalek Mankomunitateko udalerrietan desfibriladoreak jartzea erabaki zuten orain dela hiru urte. Izan ere, ondo dakite bihotz- eta arnas-gelditzeetan "hil ala bizikoa" dela biz-



kor esku hartzea, eta esku-hartze bizkor horretan desfibriladore bat erabili ahal izateak (nahiz eta osasun-arloko langileak ez izan) nabarmen handitzen du bizirik ateratzeko aukera.

Jarri beharreko desfibriladorearen modeloa oso erabilerraza da. Argi-seinaleak ditu, eta erabiltzeko jarraibideak ematen ditu, ahots ozen eta argiko mezuen bidez. Desfibriladorea erabiltzaileen ekintzetara egokitzen da, eta ez alderantziz. Gainera, desfibriladoreak berak erabakitzen du desfibrilazioa beharrezkoa den ala ez.

DESFIBRILADOREEN KOKALEKUAK

DERIO: Udaletxean (kanpoko aldean), kiroldegian, "Gurea Aretoa"-n, futbol zelaian, eskola publikoan, udaltzainen autoan

LARRABETZU: Kiroldegian

LEZAMA: Udaletxean (kanpoko aldean), eskola publikoan, Kurtze Auzoan

LOIU: Kiroldegian, Udaletxean, udaltzainen autoan

SONDIKA: Basozabal futbol-zelaian, erretiratu en etxea-liburutegian, Goronda Beko kiroldegian, Artebe kiroldegian, Kultur Etxean, udaltzainen autoan

ZAMUDIO: Leizaola lehendakari plazan, Kirol gunean, udaltzainen autoan

Dena den, ikastaro batzuk antolatuko dira oinarriko bizi-euskarrian trebatzeko (nola jardun bihotz- eta arnas-gelditzeetan) eta desfibriladorea erabiltzen ikasteko. Zenbait pertsonak, jakin-minak bulztatuta, desfibriladoreen kabinak irekitzen dituzte. Bada, hori ez da egin behar; erabili behar denean baino ez da hartu behar desfibriladorea.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Gazteria arloak Musika Lehiaketa antolatu du bigarren aldiz. Lehiaketa Erandion, Loiu, Sondikan, Derion, Zamudion, Lezaman edo Larrabetzun errolatuta dagoen eta 15 urtetik 29 urtera bitartekoa den kideren bat duten musika taldeei dago zuzenduta. Hala ere, dagoneko disko bat kaleratuta duten taldeek ezin izango dute bertan parte hartu.

Lanak maiatzaren 29ra arte aurkeztu ahaliko dira Txorierriko Mankomunitatean (Gazteria Saila) edo Erandioko Udaletxean (Gazteria Saila). Posta ziurtatuz ere bidali ahaliko dira. Gutun-azal batean CD bat sartu beharko da. CDan, lehiaketan aurkeztu diren abesti biak grabatu beharko dira MP3 formatuan, eta abestien hitzak, pdf batean. CDaren kanpoaldean, abestien izenburuak eta taldearen izena idatziko dira. Inskripzio-orria www.gaztetxorierrri.eus

Gaztea, hau da zure lehiaketa!

gaztetxorierrri.eus webgunean dago eskuragarri eta hori ere sartu beharko da gutun-azalaren barruan. Inskripzio-orria behar bezala bete beharko da.



Bigarren fasera pasatzen diren zazpi talde finalistek aurkeztutako abestietariko bat grabatuko dute CD batean. Grabaketa grabazio-estudio profesional batean egingo dute eta CDaren aleak jasoko dituzte. Horrezaz gainera, webgunean boto gehien jasotzen duen taldeari 100 euro emango zaio. Talde irabazleak 300 euro jasoko du eta bigarren abestia grabatzeko aukera ere izango du.

Anima zaitetz!

Lanak aurkezteko azken eguna:
maiatzaren 29

Lehiaketaren oinarriak
eta inskripzio-orria:

www.gaztetxorierrri.eus

Informazio gehiago: 688 62 99 65



Dantzan Korrontzirekin

Korrontzi folk taldeak proiektu berri bat aurkeztu du: *Korrontzi dantzan*. Euskal Herriko dantza talde guztiei zuzenduta dago, eta helburua da dantzariak folk taldearen abestietan oinarritutako koreografiak ikastea, elkarlan hori eszenatokiara eramateko.

Proiektuaren abiapuntua Korrontzi taldeko trikitilari eta abeslari Agus Barandiaranek azaldu digu. Taldeak *Getxo* zuzeneko diskoa grabatu zuen 2008. urtean, *Getxoko Folk Jaialdian*, eta hainbat artista gonbidatu zituzten han parte hartzera. Artista horien artean Kukai dantza taldeko Maya anaiak izan ziren, eszenatokiari abesti bi dantzatu zituztenak. Hala hasi zen Korrontzi musika eta dantza uztartzen bere ikuskizunetan. Hurrengo urtean, kontzertua eskaini zuten Billabonan, eta Oinkari hango dantza taldeak hiru dantza prestatu zituen emanaldi horretarako. Korrontzi eta Oinkari taldearen arteko loturaren hasiera izan zen. Dantzariak folk taldearen abestietan oinarritutako 15 koreografia inguru prestatu dituzte eta mundu osoko eszenatokiak

eraman dituzte elkarlanean. Dantza tradizionalak oinarritutako dantza berriak edo garaikideak dira. "Dei asko jaso ditugu dantza taldeetatik, dantza horiek non ikasi ahal zituzten galdetuz. Korrontzi Dantzan proiektua eskaera horri emandako erantzuna da", esan digu Barandiaranek.

Ikuskizunak

Proiektuan parte hartzeko inskripzioepea zabalik dago eta interesa dutenak korrontzi@gmail.com helbide elektronikoaren bidez jarri ahal dira harremanetan egitasmoaren arduradunekin. "Hogeita bost talde aukeratuko dira eta Oinkari taldeko dantzariak zein Korrontzi taldeko musikariok haien entsegu-lokaletara joango gara koreografiak irakastera. Entseguek udazkenara arte iraungo dute eta ostean, dantza talde bakoitzarekin batera ikuskizun bat eskainiko dugu talde horren herrian. Proiektuari amaiera emateko, emanaldi potolo bat egin nahi dugu, talde guztiak eszenatoki handi batean elkartuz eta jai erraldoi bat eginez". Ho-



rrezaz gainera, liburu-DVD bat ateratzeko asmoa dute Durangoko Azokarako.

Dagoeneko, 10 talde inguruk adierazi dute Korrontzi Dantzan egitasmoan parte hartzeko interesa; Laiomendi Derioko dantza taldea dago tartean. "Oso proiektu hunkigarria da guretzat. Izan ere, profesionalekin lan egiteko ohitura dugu, eta zure abestiak profesionalak ez diren dantzari gazteak zein helduak dantzatzeko ikustea oso polita da benetan, eta pozgarria".

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

TXORIERRI Inmobiliario

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

abokatuak gertu


ABOKATU ARITZA - TALAIOA
ALOKATZEAK - ESKALATZEAK
SALERKETEAK
SEGUROR BILBAOEN AGENTZIA

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Alderdiak hurbiletik

Maiatzaren 24an, udal eta foru hauteskundeak izango dira Euskal Autonomi Erkidegoan. Txorierrin, 19.153 lagunek dute botoa emateko eskubidea; eta 19.193 lagunek, Erandion. Aurreko hauteskundeetan, Txorierriko hautesleen % 72,79k eman zuten botoa; eta Erandioko hautesleen % 58,51ek. AIKOR! aldizkariak beren proposamenak azaltzeko gonbidapena egin die Txorierrin, hauteskundeetan aurkeztuko diren alderdiei, eta EAJ eta EH Bilduko alkategaiek erantzun digute. Hurrengo orrialdeotan alkategaiek datozen lau urteetarako dituzten asmoen ildo nagusiak ezagutuko ditugu.



“Derioztarrak arduratzen dituzten arloetan jarriko dugu arreta”

ESTHER APRAIZ FERNÁNDEZ DE LA PEÑA | Derioko EAJko alkategaia

Zein da zure alderdiak datorren lau urteei begira Deriorentzat daukan proiektua?

Argi daukagu herritar guztientzat bizitza kalitaterik hoberena nahi dugula, eta horretan arituko garela datorren lau urteetan. Helburu hori nagusi, derioztarren beharrianak eta ekarpenak zeintzuk diren jakiteko, hileak eman ditugu herriko elkarte eta gizarte eragile ezberdinekin batzarrak izaten. Jasotako proposamen eta ekarpen horiek osatuko dute datorren lau urteetarako proiektua, izan ere, denon artean eginiko egitasmoa izatea nahi dugu, hori baita Derio hazi arazteko modurik onena. Derioztarrak arduratzen dituzten arloetan jarriko dugu arreta: enplegu, ekonomia, kultura-euskara eta gizarte zerbitzuetan, besteak beste.

Beraz, parte-hartzearen aldeko apustua egin duzue, ezta?

Hala da. Parte-hartze erreala bultzatuko dugu eta Udala herritarrei hurbilduko diegu. Hasi dugun parte-hartze prozesu hau ez da bertan behera geldituko, datorren urteetan, jendeak esan nahi duena entzuten jarraituko dugulako. Horretarako batzarrak mantentzeaz gain, argi daukagu udaletxetik kalera irten behar dugula, hurbildu, eta derioztar guztiek, baita desilusio politiko bizia duten gazteek ere, esan beharrekoa entzun. Hori izango da nire eta nire lantaldearen datorren urteetako erronka: pertsona hurbila izatea eta inork ez dezala izan nigana etortzeko erreparorik.

Gazteak aipatu dituzu, zein da gazteriari begira jarraituko duzuen lan ildoak?

Herri bezala aurrera egin nahi badugu, era argi batean egin beharko dugu gazteen aldeko apustua. Haiengana hurbildu, entzun, babesa eman eta parte hartzaile izateko bideak eskaini, haiekin batera eraiki nahi baitugu etorkizuna. Helburu horiekin, besteak beste, gazteekiko harremanak areagotu egingo ditu-

Esther Apraiz, 39 urteko energiaz betetako emakume jeltzalea da eta bere herria derioztar guztiekin batera hazi arazteko aurkeztu du bere burua alkategai. Zuzenbide Ekonomikoan lizentziatua, lehen eskutik ezagutzen du udal bizitza zer den, izan ere, gaur egun Bilboko Udaleko Hirigintzako Lege sekzioko burua da eta azken urteotan zinegotzi aritu da, Hirigintza eta Hezkuntza sailetan, Derioko Udalean. Hurbiltasuna, zintotasuna eta lan taldean aritzeko gaitasuna dira derioztar honen ezaugarrietariko batzuk. Horregatik, erraz aurki dezakegu familiarekin eta lagunekin herrian paseoa.

gu whatsapp-a, gizarte sareak, eta abar erabiliz; gazteentzat eginiko jarduerak planifikatzeko eta garatzeko orduan, euren parte hartzea bultzatuko dugu; gazte-guneak mantendu eta hobetuko ditugu. Ezinbestekoa da lonjak kalera ateratzea.

“Derioztarren ekarpenekin eginiko egitasmoa izango da gurea, hori baita Derio hazi arazteko modurik onena”

Nolako lantaldea izango da zurea? Zer esan ahal diguzu zure kideei buruz?

Azpimarratzekoa da, taldearen % 60 emakumeek osatzen dugula. Talde heterogeneoa da, derioztarrak danak, gazte-tasuna eta esperientzia uztartzen dituen, oso prestatua, euskalduna eta garrantzitsua dena, beren herri eta herrikideen alde lan egiteko gogo eta ilusio handiarekin.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Argi daukat: derioztarrenetatik eta derioztarrentzat lanean hasi.



“Gure proiektuen eta konpromisoen gakoak pertsonak eta kudeaketa arduratsua dira”

JOSEBA GOIKOURIA ZARRAGA | Erandioko EAJko alkategaia



Joseba Goikouria kimikaria da lanbidez eta EHUKo lizentziaduna. Erandion jaio zen 1962ko urriaren 30ean eta bi seme-alabaren aita da. 1996ko abenduan sartu zen Erandio-ko Udalean eta, harrezkero, zenbait arloren ardura izan du (Funtzio Publikoa, Giza Baliabideak, Ogasuna, Ondarea eta Kontuen Batzorde Berezia, San Jose Egoitza eta Egune-ko Zentroa, Gizarte Ekintza eta Herri-arren Segurtasuna), harik eta 2009ko ekainean alkate aukeratu zuten arte; ibilbide luzea egin du Udalean beraz, eta, horri esker, bertatik bertara eta hainbat ikuspegitatik ezagutzen ditu erandioztar guztien beharrak.

Zeintzuk dira zure herriak dituen beharrianak?

Enplegu falta eta gizarte-premiak dira kezka nagusiak, eta, arlo horietan zuzeneko eskumenik ez dugun arren, behar gehien duten taldeekin are solidarioagoak izatea da gure ardura.

Eta zure alderdiak datozen lau urteei begira aurrera eramango dituen il- do nagusiak?

Erandiok bere kontuak onbideratzea lortu du, hiri-sarea berritu du, azpiegiturak eraiki ditu, auzoak herriguneekin lotu ditu, eta merkataritza, elkartegintza, kultura, aisia, hezkuntza, euskara eta herritarren segurtasuna sustatu ditu. Il-
do horiek lantzen jarraituko dugu, konpromisotzat hartuta ‘zero zorra’, herritarren partaidetza, kudeaketa arduratsua eta gardentasuna.

Zein proiektu egiteko asmoa du- zue?

Egoera honetan, ez gaude inbertsio handiak egiteko, sen onak agintzen duen mailako hazkundea bideratzeko baizik. Gure proiektuaren ardatza pertsonak dira. Erandion aurreko ekitaldian baino 186 lan-
gabe gutxiago daude, gaur egun; 127

*“Erandion ez dago
proiektu ‘izarrik’
planteatzeko, sen
onak agintzen duen
mailako hazkundea
bideratzeko baizik”*

enpresa eta 600 lanpostutik gora sortzea bideratu ditugu azken lau urteetan, eta 433.000 euro bideratu ditugu gizarte-larrialdiko laguntzen ekarpena osatzeko. Esan dudanez, horixe da gure proiektu ‘izarra’.

Eta zer jarduera zehatz aurreikusi dituzue hurrengo agintaldirako?

Itsasadarra biziberritzen jarraitu nahi dugu, liburutegi berri bat ireki Altzagan, hiriguneetako aparkaleku kopurua han-
ditu, Altzaga-Goikoa errepedeko bigarren fasea osatu, oinezkoentzako ibilbideak eta pasealekuak prestatu, aterpe-pilota-
lekua eraiki, ludoteka bat ireki Erandio-

goikoan, 10-14 urte bitarteko gazteentza-
ko gazte-gunea sortu, ikastetxeak gazte-
en aisiarako ireki, aisiaguneak antolatu
Astrabuduan eta Altzagan, Erandiogoiko-
ko San Jose auzoa berrurbanizatu, landa
eremuetako saneamendua hobetu, As-
trabuduako erretiratu elkarteak handitu,
herriguneetako sarbideak hobetu eta,
batez ere, arreta gehiago eman Lutxana,
Asua, Goiherri, Fano eta Enekuriri.

Nolako lantaldea izango da zurea?

Talde berria; heldutasuna, gaztetasu-
na, eleaniztasuna, ahalmena eta ilusioa
uztartuko dituen talde berritua. Proiektu
ireki bat aurrera ateratzeko eta erronka
berriak beren gain hartzeko konpromisoa
hartu duten gizon-emakumeek osatuta-
ko lantaldea, erandioztar guztien partai-
detza ahalbidetuko duena, eta berezia,
sentimenduetan oinarritzen delako, gure
auzoen errealitatean.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Agintean jarraitzeko zeregina egoki-
tzen bazait, ez dut egun bakar bat ere
galduko, arazoek konponbidea behar
dutelako, erantzun egin behar delako.

“Herriarren iradokizunak eguneroko jardunean eta programan erantsiko ditugu”

MIGUEL ÁNGEL GAZTELU BARRENA | Larrabetzuko EAJko alkategaia

Zergatik aurkeztu duzu zure burua alkate izateko?

Alde batetik, gaur egun, herriko giroa apurka-apurka hobetzen joan arren, pauso gehiago eman behar direla uste dudalako eta beraz, herriaren politizazio maila arintzen eta herritarrek batzen eta kohe-sionatzeko lagundu nahi dudalako. Bestetik, herritarrei bizitza erosoa egiteko eta egunero sortzen zaizkien arazoak konpontzeko borondatea daukadalako. Azkenik, Larrabetzuko udal gobernua eskuratzeko alternatibaren lidergoa hartzeko prest nagoelako.

Zeintzuk dira zure alderdiak datozen lau urteei begira aurrera eroango dituen ildo nagusiak?

Herritarrek dituzten beharrian berberak. Hainbat elkarte, talde eta pertsonarekin elkartu gara, eta herritar guztiei inkesta bat betetzeko aukera eman diegu. Oso pozik gaude jasotako ekarpenekin eta horietako asko gure hauteskunde programan tartekatuta ditugu. Entzun eta jaramon egin diegu.

Eta zeintzuk dira zure herriak dituen beharrianak?

Asko dira. Langabetuei irtenbide bat bilatzen laguntzea; herritarren eta alderdi politikoen arteko elkarbizitza sustatzea; aparkaleku kopurua handitzea; eskola inguruan ez aparkatzea eta oinezkoentzako lehentasunezko gunea bihurtzea; herriko oinarritzko mantenua sarriago eta iraunkortasunez egitea (espaloiak konpondu, argiteria, belarra moztu...); hormetako eta espaloietako garbi-ikuzia; ospitalera joateko garraio zuzena sustatzea; zerbitzuak hobetzea; irisgarritasuna...

Zelako lantaldea izango da zurea?

Adin eta formazio desberdineko herritarrez osotuta dago; bai betidanik Larrabetzun bizi izan direnak, bai etorri berriak. Taldean, esperientzia eta heldutasuna berritzeari eta gaztetetasunari daude lotuta.

Zer esan ahal diguzu talde hori osatuko duten kideei buruz?



Miguel Ángel Gazteluk 53 urte ditu. Larrabetzun jaio eta Magisteritzan diplomatu ondoren Historian litzentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Irakasle eta zuzendaria zelarik, Irakaskuntza Ikastetxeen zuzendaritzan masterra egin zuen. Azkenengo urtera arte ez du politikarekin harremanik izan. Ikastolan, urteetan zehar, kudeaketaren ardura izan zuen, berak dioen moduan, bere beste “herrian”, eta esperientzia horrek bere ibilbide berrian lagunduko duelakoan dago. Aisialdian, paseatu, familia eta lagun artean egon, sukaldatu eta, batez ere, soloan jardutea atsegin du.

Larrabetzu barru-barruan eramaten dutela eta bere herritarren alde lan egiteko prest eta prestatuta daudela. Indartsu eta ilusioz beterik daude, egoerari buelta emateko eta herria eraldatzeko, guztion artean Larrabetzu jasangarriagoa, modernoagoa eta solidarioagoa bihurtzeko.

“EAJ-PNV Udala berreskuratzeko aukerak ditu eta herritarrengandik hurbil dagoen kudeaketa erabiliko dugu”

Zer esango zenieke herritarrei euren konfiantza izateko?

Guk herritarren beharrak entzungo ditugula eta euren iradokizunak eguneroko jardunean eta programan erantsiko ditugula; aniztasuna eta tolerantzia gure iparrorratza izango direla. Aldaketa eta hobekuntza posible dela eta euren esku dagoela.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Lehenengo eta behin eskerrak eman herritarrei eta nire lantaldeari, eta jarrera, lanean hasi.



Jon Ander Aurrekoetxea Artetxe, 'Txo' ezizenez ezaguna, Lezaman jaio zen 1969ko maiatzaren 3an eta orain herrigunean bizi den arren, haurtzaroa eta gaztaroa Kurtze auzoan eman zituen. Aurrekoetxea argiketaria da eta bere lanbidea udal kudeaketarekin uztartzen du. Lau urte daramatza Lezamako Udalean, Hirigintza eta Jaiak departamentuetako ardura-dun gisa; alkate ordeza ere bada. Lezama herriaz esan du herritarrek direla herriko onena: "Gustuko dut kalera joan eta herrikideak agurtzea, izena eta abizenaz ezagutzen ditudan herrikideak dira".

"Lezamarren bizimodua hobetuko duten esparru guztiak bultzatuko ditugu"

JON ANDER AURREKOETXEA ARTETXE |
Lezamako EAJko alkategaia

Lezama herriak zer beharrian ditu?

Lezama ez da krisitik kanpo geratu. Udalek esparru horretan ardura zuzenik izan ez arren, ahal dugun guztia egingo dugu Lezamako emakume eta gizonen bizitza kalitatea hobetzeko: enplegua, ekonomia, kultura, aisia... Horiek denak jorratu nahi ditugu, beti pertsona goiburu.

Enplegu alorrean, zer proposamen egiten ditu Lezamako EAJ-PNV-k?

Gure industrialdeak sustatu nahi ditugu enpresa berriak erakartzeko; horrez gain, langabezian dauden herritarren lan munduratzeari ahalbidetzea bultzatuko dugu enprekin akordioak hitzartuz. Enpresa berriak gure herrian ezartzen badira horrek eragingo du langabezi tasa nabarmen jaistea, bereziki gazteen artean.

Eta, kultura eta aisiaren alorrean, zer proposatzen duzue?

Kulturak eta aisiak, dena bateratuta, gizarte dinamikoagoa eta aktiboagoa egiteko tresna izan behar dute. Hori da, hain zuzen, Lezamarentzat nahi duguna: herritarrek Lezama herria Lezaman bertan gozatzea. Horretarako, gure herriko elkarteekin batera arituko gara. Horren herri txikia izan arren, elkarte asko eta asko ditugu eta haiekin negoziatuko dugu jardura eskaintza hobetzeko. Hala, Kurtze auzoko baselizan erakusketak

*"Gure industrialdeak
sustatuko ditugu,
Lezaman enplegu berriak
sortuko dituzten enpresak
ezartzen laguntzeko"*

antolatuko nahi ditugu eta kaleko eskaintza zabaldu. Ludotekari dagokionez, oraingoak baino sarbide hobeak izango dituen tokia prestatuko dugu eta horrek ere suposatuko du oraingo Gaztelekua lekuz aldatzea. Neurri horiekin kalitate handiagoko zerbitzuak eman nahi dizkiegu umei eta gazteei.

Zein beste egitasmo garatu nahi dituzue?

Alde batetik, Kurtze auzoa Zamudio-ekin lotu nahi dugu eta espaloia egingo dugu horretarako. Irisgarritasuna hobetzeko neurri horiei esker Lezamako herritarrek kaletik ibili ahalko dira segurtasun handiagoarekin. Beste alde batetik, EAJ-PNVrentzat kirola osasun iturria delako, herrian bertan gimnasioa eraikitzea sustatuko dugu. Txorierriko kiroldegia eraikitzeko diru laguntasunak ematen jarraituko dugu eta txirringak garbitzeko gunea egingo dugu eskolen ondoko gunean.

Lantaldea nola deskribatuko zenuke?

Oso argi daukat kudeaketa lan onaren gakoa lan talde ona izatea dela eguneroko lanari behar bezala ekiteko. Horregatik, hauteskundeetarako aurkeztuko dugun lantaldea Lezamaren alde eta Lezamarentzat lan egingo du. Talde gaztea da, bataz beste 42 urte dituzte, eta, batez ere, ilusioz betetako taldea da. Eguneroko lanerako prest dagoen taldea osatzen dugu, jendearekin arituko dena, kalean, herritarrekin.

“Loiuko etorkizunerako egitasmo berritzaileak gauzatzeko ilusioa daukagu”

JOSU ANDONI BEGOÑA FERNÁNDEZ | Loiuko EAJko alkategaia

Zeintzuk dira zure herriak dituen beharrianak?

Bost dira Loiuko udal-ekintzak oinarritzat hartu behar dituen zutabe nagusiak: garraio publikoa ikuspegi berritzaile batetik aztertzea; balizko haurreskola baten beharrianaz aztertzea; kultur esparruan azpiegitura berri bat eratzekeo proiektua analizatzea; Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) garatzea, gazte-entzako etxebizitza eskuragarrien alde egiteko, eta udalerrian enplegua sortzen duten ekimenetara laguntza bideratzea.

Ildo nagusi horien haritik, herrian, zein proiektu egiteko asmoa duzue?

Loiuko etorkizunerako egitasmo berri eta berritzaileak gauzatzeko ilusioa daukagu. Horrela, kulturari dagokionez, azpiegitura berri baten beharrianaz antzeman dugu. Gaur egungo premiei erantzuteko proiektua izan behar du Loiuk. Era berean, udal lokalak birbanatzeko eta berrantolatzekeo beharrianaz sumatzen dugu. Izan ere, gero eta kultur eta kirol elkarte gehiagok eskatzen digute laguntza logistikoa. Honetaz gain, esan bezala, haurreskola jarri nahi dugu martxan eta zerbitzu honen egiazko beharra aztertu beharko dugu eta kokapen egokia bilatu.

Kultura bultzatzea zuen xedeetako bat dela argi geratu da.

Noski, orain arte egin dugun moduan. Loiuko txiki, gazte eta helduen beharrianaz erantzuteko prest gaude eta kultura tresnatzat erabili nahi dugu gero eta herri aktiboagoa izateko. Kalitatezko kultur ekintzak eta azpiegitura hobeagoak herritarrei eskaintzen badizkiegu, gure herrian bertan goxatzea bideratuko dugu. Herria kulturaren bitartez piztu nahi dugu herritarren arteko erlazioak ere areagotzeko.

Nolako lantaldea izango da zurea? Zer esan ahal diguzu hori osatuko duten kideei buruz?

EAJ-PNV-k Loiun aurkeztzen duen taldean badugu esperientzia eta gaitetasuna. Badaude gaur egun zinegotziak dire-



Josu Andoni Begoña Loiun jaio zen 1976an eta Magisteritza eta Zuzenbide ikasketak ditu; gaur egun Urdaneta Ikastetxean irakaslea da. Politikarekin “betidanik” harremana duela baieztatu du. “Gaztea izanik, aktiboki politikagintzan parte hartu nuen, Euzko Gaztediko Aberri Kontseiluko kide izanik”. Gaur egun, Udaleko alkate ordea da eta bi legegintzaldi bete ditu Loiuko zinegotzi gisa (Ekonomia eta Ogasun arloan eta Kultura eta Kirol sailean). Hautagai izatea “ilusioz beteta” hartzen du. “Konpromiso irmoa daukat eta kalean lan egiten segitzeko gogotsu nago, herritarren eta elkarten ondoan”.

“Talde berri hau loiutar guztien aldeko jardunean segituko du, etengabe aurrera egiten duen udalerrria izateko”

marratu nahi dut. Talde berri hau osatzen dugunok Loiuko herritar guztien aldeko jardunean segituko dugu, herri hau bizitzeko toki atsegina izateaz gain, etengabe aurrera egiten duen udalerrria ere izan dadin.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Alkatetzara heltzen banaiz, egingo dudana lehendabiziko gauza izango da Behargintzakoekin batzartu, Loiuko eta Txorierriko langabeziaren egoera ondo aztertzeke. Ostean, egoera horri aurre egiteko neurri ezberdinak hartuko nituzke.

nak eta bigarren legealdia errepikatzen dutenak, eta sartuko diren pertsona berriak, ilusioz eta ideia berriez ikasten joango direnak. Oso harro nago laguntzen didan taldeaz. Honetaz gain, azken urteotan eginikoak duen garrantzia azpi-

“Sondikako herritarrek lehentasuna izaten jarraituko dute”

XABIER ZUBIAUR AGIRRE | Sondikako EAJko alkategaia

Zeintzuk dira zure herriak dituen beharrianak?

Sondikak beharrezkoa du, herri moduan, egungo garapen ekonomiko, kultural eta sozialean sendotu eta aurreratzea, non pertsonen lehentasuna izaten jarraitu behar duten.

Eta zure alderdiak datozen lau urte-ei begira aurrera eramango dituen ildo nagusiak, zeintzuk dira?

Bost jarduera edo ildo nagusi nabarmenduko nituzke. Politika kultural desberdina ezartzea, non euskararen agerpena aktiboagoa den; herritarren parte-hartzea indartzea Udal ireki batean; udalerriko garapen ekonomikoa piztea; guztion ongizatea ziurtatzen duen gizarte-politika sustatzea, eta herrigintza eta ingurunearen garapen iraunkorra bermatzea.

Ildo nagusi horien haritik, herrian, zein proiektu egiteko asmoa duzue?

Euskara da gure nortasun ezaugarririk handiena. Beraz, Sondikako egunerokotasunean presente egotea lortu behar dugu; kulturaren, kirolean, eraketan, txikitean... azken finean gure bizitzaren osotasunean. Kandidaturak bultzatutako prozesu parte-hartzaile bat hasi dugu, jada martxan dago. Oinarritzat, elkarri entzutea eta elkarrekiko konfiantza bermatzen duen herritarrekin harreman erdua du. Gure helburua hurrengo urteetan zehar hau mantentzea da herriko bizitza politikoan parte izanik era jarraitu eta na-

Xabier Zubiaur Agirre Sondikan jaio zen 1973an. Ezkondua da eta bi alaben aita da. Ingeniari industrialia da lanbidez eta telekomunikazio enpresa batean lan egiten du gaur egun. “Sondika nire etxea delako, eta izan delako, eta politikan sinesten dudalako hartu dut alkategai izateko konpromisoa. Nire inguruko pertsonen ongizatea lortzearen alde egingo dut buru-belarri”, esan du. Honetaz gain, herritarren bizitza kalitateari eusteko eta hobetzeko aldarria egin du “irmotasun osoz hiritarrei eskaintzen zaizkien udal zerbitzuen aldeko apustua eginez”, azpimarratu du.

tural batean. Hasitako bide honetan, gazteriak protagonismo berezia izango du. Herrian garapen ekonomiko handiago bat lortzeko, Sangroizeko enpresa parkearen handitzea bultzatuko dugu. Jada enpresa berrien etorrera eta lana sortzeko aukera gehiagorako oinarriak finkatuta daude. Gainera, Sondikan Berton elkar-tearekin lanean jarraituko dugu herriko komertzioa bultzatzeko. Gizarte politikan, pertsonak dira gure lehentasuna. Hori da EAJ-PNV-ren estiloa. Ildo honetan, asko eta ondo egin da, baina ez gara hor geratuko; oraindik gehiago eta hobeto lagundu nahi dugu. Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) abian jartzeak Sondika era jasangarri batean haztea eta bere nortasuna mantentzea bermatuko du.

Nolako lantaldea izango da zurea? Zer esan ahal diguzu hori osatuko duten kideei buruz?

Talde hezi eta orekatu bat sortu dugu. Adin desberdinetako emakume eta gizonak gara, elkarrekin agerpen aktiboa dugu eta arlo profesional guztietatik gatz. Udalerri barruan eremu geografiko desberdinetatik etorriak gara eta, garrantzitsuena, kalean bizitza egiten dugunak eta Sondikako herritarrekin harremanetan gaudenak.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Atea zabaldu, zentzu guztietan.

“Talde hezi eta orekatu bat sortu dugu; kalean bizitza egiten dugunak eta Sondikako herritarrekin harremanetan gaudenak”



“Zamudioztar guztiek lana izatea da gure lehentasuna”

Zeintzuk dira zure herriak dituen beharrianak?

Gehien arduratzen gaituena, normala denez, langabezia da; zamudioztar guztiek lana izatea nahi dugu. Hori da lehen eta oinarritzko beharrianak.

Eta zure alderdiak datozen lau urte-ei begira aurrera eramango dituen ildo nagusiak?

Esan bezala, zamudioztarren lana eta formakuntza sustatzeko, bertoko enprekin harreman zuzena eta konfiantzazkoa izaten jarraitu nahi dugu. Eta zer esanik ez, merkataritxikiei ere gure laguntza eta bultzada emango diegu. Badakigu garai latzak direla pertsona askorentzat, horregatik gizarte ekintzan aurrera egiteko apustua ere egingo dugu, zerbitzuak indartuz. Era berean, berritzaileak izan nahi dugu jasagarritasunean, birziklatzean, teknologian, gardentasunean eta beste hainbeste gaitan.

Ildo nagusi horien haritik, herrian, zein proiektu egiteko asmoa duzue?

Asko eta askotarikoak. Txorierri etorbidetan zehar, Derio zein Lezamara heltzeko bidegorria egiteko gogotsu nago. Ingurugiro atsegina lortzeko, mugikortasun

IGOTZ LÓPEZ TORRE | Zamudioko EAJko alkategaia

Igotz López Torre Bilbon jaio zen 1974an, eta ezkonberritan Mundaka eta Mungiaren artean eman zituen bost urteak izan ezik, beti Zamudion bizi izan da. Zuzenbidean lizentziatua da eta bankaria izan da urte askotan. 2007ko legegintzaldian hasi zuen bere udal-ibilbidea Zamudioko Kultura zinegotzi moduan, eta 2011an hartu zuen alkatearen makila. Ekintzailea, eraginkortasunez ekiten dio arazoak konpontzeari eta jarrera irekia du beti. Azken urteotan hasitako proiektuari “jarraipena emateko gogotsu” dagoela dio; eta bere lanari buruz, hurrengoa: “ohorea izateaz gain, alkatearen lanak ardura handia suposatzen du; ardura horri seriotasunez eta profesionaltasunez egitea dut helburu”.

jasagarria izateko eta gure txirrindulari eta oinezkoak alboko herrietara segurtasunez joan ahal izateko. Zeren, Zamudioz

“Gure lantaldeak helburu bakarra dauka: zamudioztarren alde zintzotasunez lan egitea”

gain Txorierri gara eta gure herriak elkar-turik egotea nahi dugu. Bestalde, herri erdiguneari sarrera berri bat eman nahi diogu Bidekoetxe parketik; lurpeko apartakaleku berri bat egin; eta estalitako plaza bat kultur etxean, gure gazteak han jolasteko, eta bertan ere ekintzak egiteko. Gure auzoetan ere hobekuntzak egiten jarraitu nahi dugu, auzokideei bizitza erraztu eta bizi-kalitatea ematen dieten lan txiki eta handiagoak burutuz.

Eta kultur arloan?

Zamudioko bizitza kulturalaren eta aisialdiaren aldeko apustua egiten, eta arlo horiek handitzen segituko dugu, kultur eta kirol arloko ikastaroak eta jarduerak sendotuz eta areagotuz. Beste alde batetik, ikastaro berri guztiak euskaraz ere eskaini nahi ditugu, denok eduki ditzagun eskaintzak gure hizkuntzan, eta ez bakarrik gazteenek.

Nolako lantaldea izango da zurea?




Egunotan taldekideok elkarrekin lanean buru-belarri gabiltzala, giro ederra eta lan egiteko gogo handia sumatzen dut, benetan ilusio handia herriarentzat lanean legealdi berri bat hasteko. Diziiplina askotako gizon emakumeak gara, era askotako profil pertsonal eta profesionalen osotutakoa, baina helburu bakarra daukana: zamudioztarren alde zintzotasunez lan egitea.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Lanari ekin zamudioztar guztiak lana eduki dezaten eta Zamudion bizitzaz arro sentitu daitezen.



Udalbatzak (2011-2015)



“Bada pertsonengan pentsatzeko garaia”

JOSE ANGEL AURREKOETXEA APERRIBAI “JATORRA” | Derioko EH Bilduko alkategaia



Zamudion jaio zen duela 51 urte, Santimami auzoan. Hala ere, bizitza Derion egin du beti eta horregatik ezagutzen ditu, ondo baino hobeto, herriaren eta herritarren premiak. Irakaslea da eta eskarmentu handia du politikan. Hala, legealdi bitan kultura zinegotzia izan zen EA alderdiarekin. EH Bilduko zerrenda-buru aurkeztu zuen bere burua aurreko hauteskundeetan eta oposizioaren bozeramaile ibili da azken urteotan. Aurten ere izango da zerrenda-buru. “Derioztarrek aukeratu naute. Beraz, eduki ditudan beste proposamen batzuk baztertu, eta herriaren alde lan egiteko prest azaldu naiz beste behin”.

Zertan ipiniko duzue arreta datozen lau urteetan?

Gurea politika erabat soziala da. Udaletik gaur arte aurrera eraman den politika zementura egon da zuzenduta, eta usate dugu pertsonengan pentsatzeko garaia dela. Hala, derioztarrei benetan interesatzen zaizkien gaietan ipiniko dugu arreta, hala nola enplegua, gizarte-bazterketa, jasagarritasuna, hezkuntza edo komertzioa. Ezkerreko politika bat lortu nahi dugu Udaletxean, eta herritarrei entzun.

Zer proposatzen duzue Deriorako?

Hanka-sartze itzelak egin dira hirigintza arloan, adibidez, Erremerterriñe edo Mantuliz kasuan. Eta, gainera, Hirigintzako Plan Orokor berri bat prestatzen ari da. Larrituta gabilta hainbeste etxebizitzarekin, errepiderekin, aireportuarekin, kanposantuarekin... Gure proposamena dagoena hobetzea da, eta zementu gutxiago. Horrela jarraituz gero, denbora gutxi barru ez zaigulako ezer geratuko. Gure landa eremua mantendu nahi dugu,

gure baserriak. Eta eraiki, soilik benetan beharrezkoa bada, izan ere, Derion 250 etxebizitza baino gehiago daude hutsik gaur egun. Zerbitzuak hobetzea ere proposatzen dugu, instalazio ederrak egin diren arren, horiek edo horien gestioa eskas gelditu direlako, hala nola kiroldegia edo Kultur Birikaren gestioa. Bestalde, herrian 300 langabetu baino gehiago daude eta, beste neurri batzuen tartean, enplegurako udal poltsa sortu nahi dugu. Euskarak udaletxean zein kalean pisu handiagoa izatea ere nahi dugu, eta ia 6.000 biztanle garelako kontuan hartuta, gure teknikaria izatea.

Hamar neurrik osatutako dokumentu bat zehaztu duzue, eta bertan

*“Herri
kohesionatuago
bat lortu nahi dugu,
guztion herria”*

aipatutako proposamenak daude, zeintzuk dira gainerako neurriak?

Alkatearen soldata berraztertuko dugu, eta udalbatzetara joateagatik jasotzen diren dietak. Argiteria publikoaren gestioa ere aztertuko dugu berriro, eta Udalaren egoera ekonomikoa jakinaraziko dugu, herritarrek jakin dezaten zertan eta zertarako gastatzen den. Era berean, alderdikeria eta adiskidekeria baztertuko ditugu, eta premia gehien dutenei laguntzeko politikak sustatuko ditugu. *Hemen-dik* egunkarirako diru-laguntza kenduko dugu eta *Beitu* udal aldizkariaren informazio-ildo berrikusiko dugu.

Zer esango zenuke zure lantaldeari buruz?

Oso jende trebatua gara. Gainera, gutariko askok eskarmentu handia dugu politika arloan, aurretik ere Udaletxean izan garelako. Beste itxura bat eman nahi diogu herriari, eta herri kohesionatuago bat lortu, denon herria izango dena. Eta indar handia egingo dugu gutxien dutenen alde, baina inor ahaztu barik, noski.

“Larrabetzu herri bizi bat da”

IÑIGO GASTELU BILBAO | Larrabetzuko EH Bilduko alkategaia

**Zeintzuk dira Larrabetzuko EH Bilduk datozen lau urteei begira aurre-
ra eramango dituen ildo nagusiak?**

Azken lau urteotan ezker abertzalea ibili da alkatetzan, eta proiektu asko jarri dira martxan. Datorren agintaldian hiru ardatz nagusi izango ditugu. Alde batetik, mugikortasun-plana garatu behar dugu: Errekondo kalea aurtan urbanizatuko da, eta autoak eskolaren aurreko kaletik atera behar ditugu. Beste alde batetik, herriko plan orokorra garatu behar dugu. Gazteek arazoak dituzte bertan etxebizitzak erosteko eta arazo horri konponbidea eman behar diogu. Jakin badakigu esparru horretan Udaletik ahalmen handirik ez dugula, baina, esate baterako, alokatzea bultzatu nahi dugu. Azkenik, hondakinak batzea izango da gure azken ardatza. Larrabetzun aspalditik atez ate batzen ditugu hondakin organikoak, eta hurrengo lau urteetarako hondakinen % 50 birziklatzea dugu helburu. Horietaz aparte, gure ustez, herriaren eta Udalaren arteko komunikazioa indartu behar dugu. Horretarako, teknologia eta gizarte-sareak tresna baliogarriak izan daitezke.

EH Bilduk 12 puntuk osatutako programa aurkeztu du Larrabetzun, eta bertan 40 proposamen zehatz egin dituzue. Adibideren bat emango diguzu?

Adibidez, emakumeen plana egin da agintaldi honetan eta hori garatu nahi dugu, baita euskara plana ere. Gainera, osasun ikuspuntutik, zeregina ere bada-go, osasun-zentro berria agintaldi honetan ireki eta gero. “Larrabetzu herri bizi bat da” dugu lelotzat, baina leloa baino askoz gehiago da. Gure ustez, Larrabetzun mugimendu handia dago, jendea inplikatzan da, elkarteek hainbat ekimen egiten dituzte... Eta Udalak eurekin egin behar du lan, bizitasunari eusteko. Elkar-lana oso garrantzitsua da guretzat.

Zer esan ahal diguzu zerrendari buruz?

Zerrenda egiteko, 51 izen proposatu ziren herri batzar zabal batean. Zerrendan, zinegotziak izan diren lagun bi



Larrabetzun jaio zen 1968an. Eroski kooperatibaren bazkidea da 1989. urtetik, baina 2004an eszedentzia hartu eta zazpi urte eman zuen Gara egunkarian, kudeatzaile-lanak egiten. Gaur egun denda-burua da Gernikako Eroski supermerkatuan. Politikari dagokionez, Iñigok ez du eskarmentu ofizialik, baina betidanik ezker abertzalearen elkartetan ibili da. Gainera, laguntzaile ibili da Larrabetzuko Udaleko ezker abertzaleko taldean. Hauteskunde hauetarako alkategaia izatea proposatu zioten eta berak onartu egin zuen. “Herrian era askotan lan egiteko aukera dago, hala nola, elkartean. Udalean ere bai. Konpromisoan sinesten dut eta noizbait aurrerapausoa eman behar da, eta niri orain suertatu zait”.

daude, beraz, ez da esan beharrik eskarmentu handia badugula. Baina batez ere, nabarmenduko nuke gogo ikaragarria dugula herriaren alde lan egiteko. Era be-

*“Politikariok zein
udal langileak
herriaren
zerbitzura egon
behar gara”*

rean, zerrendaren lehenengo zazpi hautagaietako bost emakumezkoak dira, eta zerrendaren % 65 ere, emakumezkoak.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Batzarra antolatuko dut ateratzen garen 11 zinegotziokin, eta bertan lehen-tasunak ezarri, ahalik eta lasterren lanean hasteko. Guk uste dugu denok batera lan egin behar dugula, bai gobernuko zinegotziek, bai oposizioko zinegotziek. Udal langileekin ere batzartu nahiko nuke, gure lehentasunak haiei jakinarazteko. Azken batean, guztiok gara Udaleko langileak eta herriaren zerbitzura egon behar gara.

“Lezama berria eraiki nahi dugu”

JOSU CAMARA IZAGIRRE | Lezamako EH Bilduko alkategaia

Zeintzuk dira Lezamaren beharri- zanak?

Udal kudeaketa zaharkituta dago eta aldatu behar da. Gure leloak dioen moduan, “Lezama berria eraikitzen, dekogunetik ez dekogunera”. Gure ustez, delegazionismoaren ordeztu, konpromisoa nagusitu behar da, hau da, askotan boza eman eta gero, hurrengo lau urteetan udalarekin ahaztu egiten gara. Hori ezin da izan. Jendeak bere iritzia jakinarazi nahi du eta herriari dagozkion erabakietan hartu nahi du parte. Herritar guztion artean erabaki behar dugu zelako herria nahi dugun, eta Udalak haien zerbitzura izan behar du.

Zeintzuk dira Lezamako EH-Bilduk datozen lau urteei begira aurrera era- mango dituen ildo nagusiak?

Partaidetza bultzatu nahi dugu. Ildo honi jarraituz, hiru zutabe ideologiko proposatzen ditugu. Lehenengoa, Lezama koloretsua da. Guk Lezama morea eta berdea bultzatuko dugu. Berdea, ekologia eta ingurumena zaintzen dituen. Gure lurra ez dugu salduko eta ez dugu hori artifizializatu nahi. Lehenengo Sektorea gure lehentasuna izango da, baita berto-

*“Herritar guztion
artean erabaki
behar dugu zelako
herria nahi dugun”*

ko merkatariekin zerikusia duen industria ere. Eta morea, Lezama izen femeninoa duelako. Emakumeekin kontatu barik, Lezamak ez du etorkizunik.

Bigarrena, Lezama hezitzailea da. Gure ustez, eskola da herriko bihotza eta horren inguruan dagoen erkidegoa bultzatuko dugu beti. Gure eskolak kalitatezko hezkuntza eskaintzen du, baina maila horri eusteko lan egin behar da eta baliabideak eman behar zaizkio. Azken batean, eskolan ikasten duten neska-mutilak laster izango dira Lezamako emakumeak eta gizonak.

Azkenik, elkarteen mugimendua da gure hirugarren zutabea. Eskola bihotza bada, elkarteak dira odola. Eta zenbat eta elkarte eta ekintza gehien egon, orduan eta osasuntsuagoa izango da herria. Gure ustez, egoerarik onena izango litzateke


elkarte guztiak koordinatzea, Lezamak behar dituen giza, kultur, eta kirol politikaren ardatz nagusiak ezartzeko.

Zer esan ahal diguzu zerrendari bu- ruz?

Oso garrantzitsua da, partaidetza bultzatzen dugulako. Gure zerrenda oso anitz da. Hamalu lagunek osatzen dugu herriarekin lan egiteko konpromisoa hartu dugun lan-taldea. Sarea josi nahi dugu Udalaren inguruan, herritarrei parte hartzeko aukera emateko. Horren haritik, herri batzarrak sortu ditugu, “gune irekia” izenpean. Bertan edozein herritarrek adierazi ahal ditu kezak, ekarpenak... Batzar horietan oinarritu nahi dugu Administrazioaren eta herritarren arteko harreman finkoa. Gainera, auzoz auzo egin nahi ditugu batzarrak eta elkarlana bultzatu nahi dugu herriko elkarteekin. Batzuetan ematen du dena egiten dela Udaletxean, herrigunean, baina Lezaman auzo guztiak dira garrantzitsuak.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Udalbatzarrak irekiagoak egin nahi ditugu, herritarrei parte hartzeko aukera bermatzeko. Gainera, alkatearen soldata ia erdira jaitsi nahi dugu. Diru hori herriak dituen beste beharrianetara bideratuko genuke.



Lezamakoa zuen ama, baina Bilbora joan zen lan egitera eta bertan jaio zen Josu 1956an. Ogibidez, irakaslea da eta zazpi urte eman zuen horretan lan egiten, baina gero bokazioa nagusitu zen eta aktore egin zen. Besteak beste, Kukubiltxo taldea sortu zuen duela 35 urte, eta gaur egun beste proiektu batzuetan dabil. Zuzenean ez du inoiz politikarekin inolako harremanik izan, baina inguruan gertatzen diren gauzak interesatzen zaizkion heinean, gizon politikotzat jotzen du bere burua. Gainera, bere emaztea zinegotzia izan da Lezaman, eta Josu laguntzaile ibili da EH Bilduko udal taldean, batez ere kultura arloan. “Herriaren alde lan egiteko garaia heldu zait eta horregatik onartu dut alkategaia izatea”.

“Udalak soilik herritarren alde egin behar du lan”

JON ANDONI CIARSOLO ORTIZ | Loiuko EH Bilduko alkategaia

Zeintzuk dira Loiuk dituen beharri-zanak?

Gaur egun, krisi larria daukagu, eta, horren ondorioz, arazoak sortu dira herrian: langabezia igo egin da, eta, esate baterako, elikagaien bankua sortu da, hainbat lagunek beharrezana dutelako. Gure ustez, hori da funtsezkoa, jendea. Horregatik, lagundu behar diegu premiak dituzten familiei, hau da, guk uste dugu gizarte ekintza bultzatzeko politikak jarri behar ditugula martxan.

Zeintzuk dira Loiuko EH Bilduk datozen lau urteei begira aurrera eramango dituen ildo nagusiak?

Kultura, euskara, lana, ongizatea, hiritza, osasuna... Arlo guztiak dira garrantzitsuak, noski, baina Loiuko Udalean beste alderdi batek agintzen duela kontuan hartuta, lehenik eta behin azterketa egin behar dugu, herria nolako baldintzetan dagoen jakiteko. Dena dela, jendea izan behar da gure lehentasuna, ez errepideak edo beste proiektu handi bat. Udal batek soilik bere herriaren eta herritarren alde egin behar du lan, ez enpresen alde.

Ildo nagusi horien haritik, herrian, zein proiektu egiteko asmoa duzue?

Hainbat proiektu egin nahiko genituzke. Adibidez, garraibide publikoa hobetu behar da: Loiuko hiru auzoak lotu nahi ditugu autobusez, beste udalerrian egiten duten moduan. Gainera, krisian gaudela kontuan hartuta, Udaleko ekonomia bereziki kontrolatu behar dugu, dirua ez xahutzeko. Guk uste dugu Udala herritarren zerbitzura egon behar dela

“Jendea izan behar da gure lehentasuna, ez errepideak edo beste proiektu handi bat”



Jon Bilbon 1964an jaio zen, baina betidanik Derion bizi izan da. Familia abertzalea zen, eta 14 urte zituela, EAJko kide egin zen Derion. 1986an EAJ zatitu zenean, Jon EAKo militante egin zen eta handik EH Bildura heldu zen. Argi dago politika beti interesatu zaiola, baina berak ez du bere burua politikaritzat hartzen, herritar arduratsutzat baizik. Hala ere, Jonen badu eskarmentu politikoa: Kultura zinegotzia izan zen Derion, eta azken lau urteotan Loiuko Udaleko zinegotzi ibili da. Gaur egun, Larrondon bizi da. “EH Bilduk nire izena proposatu du alkategaia izateko, eta nik poz-pozik eta arduratsu egingo diot aurre erronkari”.

eta Udalak erantzuna eman behar die Loiun dauden familien eta enpresen eskaerei. Horren haritik, herri lanak bultzatu behar ditugu, Loiuko auzoak dinamizatzeko. Gainera, EH Bilduk sustatu nahi ditu lurrraren kudeaketa, euskara, kirola eta aisialdia, eta ingurunea.

Zer esan ahal diguzu Loiuko EH Bildu lan taldeari buruz?

Zorionez, talde ederra dago nire atzean. Guztiek konpromiso ikaragarria adierazi dute herriarekin. Hemen bizi dira eta herritarren beharrezanak benetan ulertzen dituzte.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Alkateak eta zinegotziok gehiegi kobratzen dugu eta nik soldatak jaitziko nituzke. Eta beti izango dut argi Loiuko gizonek eta emakumeek aukeratu naute-la, herriaren alde lan egiteko.



“Udala herriarena da”

KEPA KAREAGA GANBOA | Sondikako EH Bilduko alkategaia

Zein da zuen politika eredua?

Herritarren ordezkaritza den heinean, uste dugu Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu behar duela. Eta horretarako, informazioa eman. Hala, gai izango gara guztion artean herria egiteko. Udala herriarena delako, eta beraz, irekia eta gardena izan behar du. Baina, gure ustez, Sondikako Udala herritik urrun dago gaur egun. Bestalde, planifikazio falta ikusten dugu, egitasmoak epe laburrera garatzen direlako, horrek dakartzan arazoekin. Adibidez, eskolako patioa egin da, estaldu barik, gero obrak egiteko berriro?

Eredu hori, zein arlotan gauzatuko da?

Sondikan 1.000 etxebizitza berri egitea aurreikusi du EAJK. Gu parte-hartzailegoa den Hiri-antolamenduko plan orokor (HAPO) baten alde gaude, etorkizuneko Sondika guztion artean erabakitzeke. Gainera, plan horretatik kanpo dauden etxebizitzetxei ere segurtasun juridikoa eman behar zaie. Hezkuntza arloan, ba-

tzorde bat sortzea proposatzen dugu, eskolan dauden arazoei aurre egiteko. Izan ere, beste premia batzuen artean, eraikin bera eta jantokia txiki gelditu dira. Gaur egungo testuinguru ekonomikoa kontuan hartuta, Udalak politika ekonomikoak sustatu behar ditu jendearen mesedetan, eta kasu konkretuetan, zergak jaitsi edo salbuetsi. Udal lan-poltsa bat sortzea ere jotzen dugu beharrezkotzat, eta lan-klausulak ezartzea, Udalak kontratatzen edo azpikontratatzan dituen zerbitzuetan. Zerbitzu sozialen gida osatzea ere interesgarria da, jendeak zer

*“Programa bizia dugu,
eta prest gaude
proposamenak
entzun eta onartzeko”*

Berrogeita bi urte ditu, ekonomialaria da, eta Euskal Herriko Unibertsitatean egiten du lan. Abertzale eta ezkertizat hartzen du bere burua, eta kezka handia du bere herriarekiko. Horregatik sartu zen oso gaztea zela Sondikako ezker abertzalean. Handik hona hainbat arlo eta mugimendutan hartu du parte. Eta horregatik ere EH Bilduk Sondikan herriko programa egiteko zabaldu zuen prozesuan hartu zuen parte. Herritarrek zerrendaburu aukeratu dute. “Denok eman behar dugu zerbait, eta nik erantzun beharreko premiak ikusten ditut herrian”.

eta non eskatu ahal duen jakin dezan. Era berean, herrian gero eta nagusi gehiago daudela kontuan hartuta, eguneko zentro bat ipintzeko aukera aztertu beharko genuke, eta jubilatuen etxea zein haren zerbitzuak handitu. Azkenik, euskara batzordea eratzeke proposamena egiten dugu. Euskara eta helduen euskalduntzea bultzatu behar dira, eta, kontratatzen eta azpikontratatzan diren zerbitzuei dagokienez, klausula linguistikoak ezarri.

Beste ekintza konkretu batzuk?

Bai, Larrabarrrena parkean komun publikoak ipintzea, herri txoko bat egitea, eragile sozialei ematen zaien diru-laguntza arautzea edo tren-geltokiko aparkalekuan estalki iraunkor bat ipintzea. Berdintasun arloan ere eman behar dira pausak: kontratazioetan parekotasuna bermatzea, genero indarkeriaren aurkako protokoloak ezartzea, edo emakume izena duen kalerik ez dugunez, hori ere aztertzea. Guk kale bati Polixene Trabudua izena ipintzea proposatzen dugu.

Zelako lan taldea da zurea?

Talde anitza da, jende gazteak, aurretik zinegotzi ibili direnek, emakumeek, gizonek... osatuta. Gogoia dugu, eta konpromisoa. Izan ere, azken batean honek lana dakar, eta horretarako, gogoia eta konpromiso eduki behar da. Gainera gure programa ez da itxia, bizia baizik, eta prest gaude edozein proposamen eta irizki entzun eta onartzeko.

Alkatetzaz jabetuz gero, zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Alkatearen soldata jaitsi eta HAPOa berraztertu guztion parte-hartzearekin.

“Denon parte hartzearekin egindako Zamudio nahi dugu”

IÑAKI ASTORKIZA IRURETAGOiena | Zamudioko EH Bilduko alkategaia



Zeintzuk dira Zamudioren beharri- zanak?

Herritar askok ezin diete gastu behinenei aurre egin, eta larrialdi sozialetarako laguntzak urteko lehenengo hilabete-etan agortzen dira. Zamudion langabezia dago eta langabezi tasa hori ezin da ulertu, berton dagoen lantegi-kopurua kontuan hartuta. Udalak inplikazio zuzena eduki behar du horretan. Gazteak ere baztertuta daude, lonjetan sartuta, eta nagusiek jasotzen dituzten laguntzak beren premien arabera izan behar dira, inor ez dadin benetako beharrian bat ordaindu ezinik gelditu.

Eta zuen ildo nagusiak?

Horiek zehazteko, gure filosofia zehaztu behar da lehenik: beharrianak dituztenen alde beti egin, eta ezkerretik. Udalaren funtzionamendua demokratizatu behar da, herritarron parte-hartzea bultzatu, eta, gai nagusietan, zamudioz-
tarro erabakitzeko aukera eman. Filosofia horri jarraituta, arloz arlo egingo dugu lan. Kulturen, adibidez, elkarleen arteko lana bultzatuko dugu, eta beharrezko dituzten baliabideak eskainiko dizkiegu.

*“Udalaren
funtzionamendua
demokratizatu behar
da, eta herritarron
parte-hartzea bultzatu”*

Eskola zaharra ere kultur gune bihurtzeko asmoa dugu. Udalak euskara ikastea eta erabiltzea bultzatu behar du, laguntzen bidez zein antolatzen diren ikastaroetan. Lagatzuren lana sustatzea ere ezinbestekoa da, eta AIKOR! aldizkariari behar duen sostengua eman behar zaio. Bestalde, alokairuaren alde egiten dugu. Zamudiok ez ditu Arteaga sektoreko etxebizitzak behar. Plan hori eskariak kontuan hartu barik bultzatu da eta zulo beltz batean sartu gaituzte, etxebizitza politika urteetan markatuko duena. Eta Uxinalde ere ez guke ukituko. Beste industriguneak ez daude beteta, beraz, zertarako berriak?

Udalak enpresekin inplikazio zuzena izan behar du, zure ustez.

Irakaslea da eta 53 urte ditu. Zamudioztar hau gazte-gaztetik dabil politikan, 16 urterekin gazte mugimenduetan hasi zen-eta. Ondoren, Zamudioko ezker abertzalean ibili da. EH Bilduk hautagaiak proposatzeko aukera eman zien herritarrei eta zerrenda-buru bera aukeratu zuten. “Ohore moduan hartu dut Zamudio abertzaleago eta ezkertiarago egiteko konpromisoa”.

Kudeaketa publikoko lan-poltsa bat sortu behar da, eta enpresa publiko bat Udalaren menpeko zerbitzuetarako. Hala, bitartekariak kenduko lirateke eta diru asko aurreztu. Gainera, enplegurako aukeren berdintasuna bermatu eta entxufismoaren kontra egingo guke. Komerztzioa ere ezin dugu ahaztu. Tabernak, dendak... zaindu behar ditugu; osterantzean, herri hil egingo zaigu.

Proiekturik buruan?

Gure lanaren ardatza ez da izango obrak egitea, zamudioztarren eguneroko bizitza hobetzea baino. Baliabide ekonomikoak behar ditugu horretarako, eta lehenengo eta behin geuk izan behar dugu adibide. Kargu publikoetan gastatzen den dirua lotsagarria da. Alkateordearen soldata kenduko guke, legegintzaldian 180.000 euro inguru aurreztuz, eta alkatearena ere asko gutxituko guke. Baita zinegotzien dietak ere. Era berean, auditoria bat egingo guke, kudeaketaren gardentasuna beharrezkotzat jotzen dugulako.

Nolako lantaldea da zurea?

Plurala, eta hori arazoa baino, aberastunaren seinalea da. Lantalde kapaza da eta bakoitzak zer esan handia du arlo ezberdinetan. Zamudioren alde lan egiteko ilusio handia duten herritarrak dira eta ni harro nago haietaz.

Herritarrentzako jaiak

Igaz egindako aldaketak mantendu egingo dira eta aurreko urteetako jai-ereduari jarraituko jako. Bestalde, jai-batzordeak irudi barria dauka aurten



a: Aner Mentxaka

Derioko jai-batzordeak laugarren aldiz prestatu dau San Isidro jaien egitaraua, eta, esan deuskuen moduan, aurten be aurreko urteen ereduari jarraitu deusie. "Jaiak herritik eta herritarrentzat antolatut doguz". Aldaketa nabarmenak egon ziran igazko egitarauan, eta, hareek egokiak izan zirala ikusita, pasa dan urteko eske-mea mantenduko dabe.

Halan, "Gau tropikala" antolatu dabe barikurako. Gau tematikoa izango da eta txosnagunea bereziki apainduko dabe. Jaira loradun alkondarak, gona hawaiia-rrak, lastozko txanoak... jantzita joateko gonbidapena egin deutsee herritarrei. "Bestalde, kuadrillen arteko txapelketak arrakasta handia euki eban iaz, eta horregaitik egingo da aurten be. Kuadrilla batzuek han parte hartzeko izena emon dabe dagoeneko, eta igaz moduan, jaietan zehar proba batzuk egin beharko ditue, sariak eskuratzeko".

Herri bazkaria zapatutik domekara aldatu eben aurreko urtean, eta euren

esanetan, inoz baino lagun gehiago batu ziran bertan. Beraz, aurten be domekan izango da eta aukera bi egongo dira: euro baten truke, bazkaltzeko lekua erreserbau; ala sei euroren truke, lekua erreserbetuez gainera, sukalki-platerkada bat eskuratu. Bazkarirako txartelak maiatzaren 10era arte egongo dira salgai taberna honeetan: Txapas, Oso Pardo, Adarve eta Mendia.

Urtero moduan, gustu eta adin guztientzako ekitaldiak izango dira San Isidro jaietan: antzerkia, txitxarrilloa, poteoa txarangeagaz, umeentzako ekintzak... Aitatzekoa da barikuan gazteentzat egongo dan zirku tailerra. Musikeari jagoko-

nez, ahalegina egin dabe estilo ezberdinetako taldeak ekarten; esate baterako, lheskide (rock), Anai Arrebak (elektro-funk dantzagarria), Joxe Replay (Joxe Ripiauri tributoa) eta Las Tea Party dj-ak. Gainera, Che Sudaka talde katalan-argentinarra egongo da Derion, mundu birea bukatu ondoren. Txorierriko taldekideak dituen taldeek be igongo dabe eszenatoki gainean: Cacas Blancas (Sondika eta Bilbo) eta Santi Matxete (Derio eta Mungia).

Kameleoia

Ekitaldiak Herriko Plazan, txosnagunean, San Isidro eleizearen inguruetan, frontoian eta kantxa gunean, probalekuan eta Bakearen plazan egingo dira. Euria eginez gero, ekintzetariko batzuk frontoira eroango dira.

Jaiei maiatzaren 14an, egunean, emongo deutsee hasikerea. "Pregoa Lainomendi dantza taldeak irakurriko dau. Aurten, 25 urte bete ditue eta herrian daben parte-hartzea eta konpromisoa ikusita, uste dogu guztiz aproposa dala hareek izatea pregoilariak".

Bestalde, aitatu beharra dago jai-batzordeak irudi barria daukala aurten: kameleoi bat. "Animalia horrek ondo deskribiten dau batzordearen izaerea. Alde batetik, askotariko jaiak antolatzea da gure helburua, gustu guztientzat eta kolorez beteak; eta bestetik, kameleoien moduan, begi bategaz atzera begiratzen dogu, egindako beharra gogoratuz, eta beste begiagaz, aurrera, etorkizunera".



Ondo pasa jaietan!!!



Derio

Zurekin Aurrera!



en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio

TEL. 94 424 38 34



Jaietan be EUSKARA AHOAN!

Gozatu jaiak euskaraz!



SUGOI
TABERNA

11:00etatik aurrera zabalik



Goiko kalea, 2 - 48160 Derio - 94 454 16 07



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Telef / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



Vulcanizados DERIO

Herriko plaza, 5 behea • 48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 94 454 00 21



MICHELIN
zerbitzu ofiziala

Maiatzak 14, eguena

–19:00: Pregoia eta trakea, Herriko plazan.

–19:20: Txitxi-burruntzia, Herriko plazan (kioskoa).

–19:20: Kuadrilla-pankarden aurkezpena, Herriko Plazan.

–20:00: Xaibor diskofestea, txosnagunean.

–20:30: Poteo musikatua, kaleetan zehar.

Maiatzak 15, barikua

–11:30: Mezea, San Isidro eleizan. Ostean, biribilketea, eleizatik herrira.

–11:30: Marrazki lehiaketea, frontoian eta kantxa gunean.

–11:30-13:30: Ume eta gazteentzako ekintzak, frontoian eta kantxa gunean.

–16:00-18:30: Ume eta gazteentzako ekintzak, frontoian eta kantxa gunean.

–19:00: Idi probak + giza probak, probalekuan.

Jai-egitaraua

–19:00: Kale-antzerkia, Bakearen plazan.

–20:30: Kuadrillen igoerea, kalejirea eta olinpiadak, Bakearen plazatik txosnagunera.

–22:00: Gau tropikala. Kontzertuak, txosnagunean: Kakas Blancas, Anai Arrebak, Che Sudaka eta Garilak 26.

Maiatzak 16, zapatua

–11:00: Biribilketea, kaleetan zehar.

–11:30-14:30: Artisau azokea, kaleetan zehar.

–11:30: Ume eta gazteentzako ekintzak (KULKI), Herriko Plazan.

–17:00-20:00: Artisautza azokea, kaleetan zehar.

–18:00: Euskal dantzak, Herriko Plazan.

–19:00: Pintxo-pote + Fave de Fuca elektrotzaranga, kaleetan zehar. Kuadrillen poteolinpiadea.

–20:00: Kontzertuak, txosnagunean: Santi Matxete, Joxe Replai, Iheskide eta Las Tea Party.

Maiatzak 17, domeka

–11:00-14:30: Elikagai azokea, kaleetan zehar.

–12:00: Frontenis txapelketearen finala, frontoian.

–15:00: Herri bazkaria (Sukalkia), txosnagunean.

–17:30: Kuadrillen Playback lehiaketea, txosnagunean.

–17:30: Bizkaiko Lau eta Erdiko Txapelketearen finala, frontoian.

–18:30: Kuadrillen txapelketearen finala eta sariak banatzea, txosnagunean.

–19:00: Briska txapelketearen sariak banatzea, txosnagunean.

–19:00: Txitxarrilloa, txosnagunean.

–20:30: Txitxarrilloa, txosnagunean.

–21:00 Jai amaiera, txosnagunean.



Jatetxea **SAN ISIDRO**

ESKOLAKO ORDELTAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GAZTEGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 90 Mungialde etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

Nire Autocasion

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

harategia - urdalategia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA



Mikel Deuna, 7 + DERIO 48160 * T: 454 52 94

1990 1991 1992 1993 1994

14an 20:00etan | 16an 18:00etan
PREGOIA | DANTZA
AGERRALDIA
ondo pasa jaietan!

25 urtez
Isidro Deuna
jaietan dantzan

2015

LIMOHENDI
1990
2015

DERIO
BATZORDIA

Derio

DON RUFO
albaitaritza-klínika

LARRIALDIK
607856039

Mungialde etorbidea 11
48160 Derio (Bizkaia) n
Tel.: 946 036 811
info@donrufo.com

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zinaitzu Bonua
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klínika

Txoni etorbidea, 9 - Loria | Antea eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 48
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

OPTIKA
moderna

Ikusmena graduatzea
Zenbait motatako betaurrekoak
Lentillak egokitzea

Erdiko kalea, 4
48160 Derio

94 454 37 99

Liliak
Loradenda

Ezkontzetarako lore arteko
azken tendentziak eta klásikoak

Ondo pasa jaietan!

Erdiko kalea, 2
48160-DERIO
94 454 12 23
Facebook: liliak loradenda

a n e
ile apaindegia

solarium arin horizontala
dutzen zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Gorbea, 8 - 48160 Derio

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko
hortz klínika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Guztiok parte hartzeko modukoak

Herritar guztientzako ekintzak egongo dira,
baita nobedade bat be: falkoneria erakustaldia



a: Zamudioko Udala

Eguraldi ona jai-batzordetik azaldu deuskuen moduan, helburua jaietan herritar guztiek parte hartzea da, umeei zein gazteek eta nagusiek. Eta horretarako, jai-egitarau zabala antolatu dabe, adin eta gustu guztiei zuzenduta.

Jaiei maiatzaren 22an, barikuan, emongo deutsee hasierera. Txupinazoa, kalejireia eta perretxiko jana egongo dira egun horretan. "Egun polita izan ohi da, plazan jentetza batzen garalako. Modu polita da jaiei hasierera emoteko". Musikea Txarango, Ze Esatek eta Gozategi taldeek ipiniko dabe. Zalantza barik, egun handiena zapatua izango da. Urteak dira egun horretarako Sukalki txapelketea antolatzen dala eta egun osoan zehar giro ederra dago Bidekoetxe parkean. Giro ederra eta usain goxoa. "Umeentzako jolasak eta

hipika proba be egingo dira. Azken horrek arrakasta handia izaten dau. Jente asko batzen da eta, gainera, umeei aukerea dabe zaldi gainean ibilteko". Arratsaldean, slaloma, dantzen agerraldia eta abesbatzen kontzertua egongo dira. Kontzertuak Lain, Kartzarot eta Garilak 26 taldeen eskutik izango dira. "Egun osoan zehar egoten dan parte-hartzea azpimarratzekoa da. Gainera, herriko alkarte batzuk be ekin-tzak-eta antolatzen dabez, inplikazio handia daukie, eta hori be eskertzekoa da".

Polito pasau

Zapatuko ajearen ostean, frontoira joan beharko da domekan, pelota partiduak egongo diralako, ume eta senior kategorian. "Bestalde, falkoneria erakustaldia antolatuko da lehenengo aldiz. Ordu bete inguruko saioa da, eta oso ikusgarria. Benetan merezi dau Sabino Arana plazarako

*Egun handiena
zapatua izango da:
Sukalki txapelketea,
hipika proba, slaloma,
dantzak, kontzertuak...*

no hurbildu eta ikuskizunaz disfrutatea". Umerezko bakarriketa batek amaierea emongo deutso domekako ekitaldiei. Astelehenean, mezea, kopaua eta karta txapelketea izango dira.

"Zamudioztarrak eta inguruko lagunak animau gura doguz Pazko jaietara etortera. Guztiontzako ekintzak topauko dabez berton, eta hainbat aukera eukiko dabe familian zein lagunaren artean polito pasateko".



**Garmendia
ardoak**

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Ostia-entzia & Hortz-estesia
HORTZ-PLANTEAK - ORTU-ONTZA-ESTETIKA
DANTZAK - HIP-ILDIKAK

Dr. Arriola kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 62 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Parte hartu
gure jaietan



**Jaiak
euskaraz bizi!**




**Carrefour
express**

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*



LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**



**TOLDOS
TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan



BAR TXIKI
ESPEZIALITATEA TORTILLAK

Lehendakari leizaola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 68



Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Maiatzak 22, barikua

- 19:00: Txupinazoa eta gozokiak, Sabino Arana plazan.
- 19:00: Kalejireia, Bertokogaz eta Zamudioko txistulariakaz.
- 20:00: Perretxiko jana, Sabino Arana plazan.
- 20:00: Brincadeiro taldea, kaleetatik zehar.
- 23:30: Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Txarango, Ze Esatek eta Gozategi.

Maiatzak 23, zapatua

- 09:00: Sukalki Txapelketan izena emotea, Bidekoetxe parkean.
- 10:00: Hipika proba, Bidekoetxe parkean.

Jai-egitaraua

- 11:00: Umeentzako jolasak, Bidekoetxe parkean.
- 14:00: Sukalki Txapelketearen sariak banatzea, Bidekoetxe parkean.
- 15:30: Slalom-a, Torrelarragoitin. Zamudio Racing Elkartek antolatua.
- 16:30: "Dantza plazara", Oskizola taldeagaz. Bidekoetxe parkean.
- 18:30: Euskal dantzak, Hiru Bat dantza taldearen eskutik. Eskolan.
- 20:00: Abesbatzen kontzertua, San Martin eleizan: Zamudioko Kamara Korala, Enarmonia (Zaragoza), Zozoak Abesbatza (Getxo) eta Mundakako abesbatza.



- 23:30: Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Lain, Kartzarot eta Garilak 26.

Maiatzak 24, domeka

- Fanfarrea, kaleetatik zehar.
- 10:00: Umeen pelota partiduak, Arbolantxa pelota eskolaren eskutik.
- 11:00: Mezea, San Martin eleizan.
- 12:30: Senior mailako pelota partiduak. Arbolantxa pelota eskolaren eskutik. Aurtenetxe-Olalde vs. Beitia-Bilbao.
- 13:15: Falkoneria erakustaldia, Sabino Arana plazan.
- 18:00: A gusto umorezko bakarrikiztea, Sabino Arana plazan.

Maiatzak 25, astelehena

- 12:00: Mezea, San Martin eleizan. Osean, kopaua eleizpean.
- 16:00: Karta txapelketea, Adintsuen Etxean.



GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

PATXI KOOP

FAZKO KOOPERAZIOA ELKARTEA
Herriko politgoia | Etxeare 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 387 | info@patxi-koop | www.patxi-koop

Peñasko arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 43-2

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

**GAMINIZ
JATETXEA**



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBATARRITZA
Nerea Pedrosa c/o. s/r
COOP. GARAISIA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Iñaki 94455 65 08
Jabi 94452 14 31

**Magalarte
Txakolina**

ARETXABALETTA: EGINA ETA BOTTILAJETIA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

75 cl.
10,75 % vol.

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantza kalea, 6 - 1.ºz.º.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móbil: 665 70 33 12



Fle-apaindegia
TXPI

Mª Antonia Llodio
TXPI

Tecnemko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin**
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BET burren




luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel/Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Tel/faxa: 94 452 06 64
Torrelagotiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA - JATETXEA



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA



94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Jolastu ere euskaraz egin!

Batzuetan, gurasoek ez dute nahikoa baliabiderik seme-alabekin euskaraz jolasteko. Hutsune hori betetzeko, "Olgetan euskaraz" egitasmoa bultzatu dugu Zamudioko herri ikastetxean. Zertan datza? Bada, gurasoak eta haien seme-alabak astelehenetan, ordu batez, batuko dira eskolan, eta dinamizatzaile batek euskarazko hainbat jolas eta abesti irakatsiko dizkie. Astero saio ezberdin bat egingo da eta, hura amaitzen denean, fitxa hezigarriak jasoko dituzte, saioan ikasi dutena parkean, kalean, etxean... praktikan ipin dezaten.

Saioak doakoak dira, apirilean hasi dira eta ekaina arte iraungo dute. Oso ekin-tza dibertigarria eta dinamikoa da, eta umeek zein gurasoek primeran pasatzen dute. Saio bakoitzean, gai bat jorratuko da; esaterako, animaliei lotutako jolasak, beste herri batzuetako jokoak, abestiak eta zentzumenak garatzeko ekintzak.

Lehen esan bezala, proiektuak euskarazko jolasak ditu ardaztat, eta gurasoen

Berbalagun egitasmoaren arduradunok, TOTOAN TEEF-k eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak "Olgetan euskaraz" proiektua ipini dugu martxan. Proiektua "Gurasolagun" egitasmoaren barruan dago, eta familiei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea du helburu.

eta seme-alaben arteko euskarazko harremana jolas horien bidez sendotzea da helburua.

Baina helburu nagusia hura den arren, ez da bakarra, egitasmoak beste onura batzuk ere ekarriko dizkielako. Izan ere, eskolako ordutegitik kanpo antolatzen diren ekintzak umei bakarrik zuzenduta daude eta, ondorioz, familiek aukera gutxi dute halako egitasmoetan elkarrekin parte hartzeko. Hizkuntza ohituretan, erabileran eta motibazioan eragiteaz gainera, "Euskaraz olgetan" egitasmoari esker, primeran pasatzen dute eta euren artean euskara modu ludiko eta dibertigarri batean ere erabiltzen ikasten

Dinamizatzaile batek euskarazko hainbat jolas eta abesti irakatsiko dizkie gurasoei eta umei

dute. Era berean, euskararen erabilera bultzatzen dute eta, eskolan ikasitakoa kalera eraman daitekeenez, euskaraz olatzea dibertigarria dela erakusten



**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefona:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea



diete lagunei eta senideei, horretarako hainbat jolas, abesti, dantza, aukera... dagoelako.

Abiapuntua, Getxon

"Euskaraz olgetan" egitasmoan parte hartu nahi baduzu, gurekin jarri ahal zara harremanetan, telefono zenbaki honetara deituta: 635 75 35 95. Edo nahiago baduzu, e-mail bat idatzi ahal diguzu helbide elektroniko honetara: txorierrri.berbalaguna@gmail.com.

Egizu Getxoko euskara elkarteak duela bost urte ipini zuen martxan "Olgetan euskaraz" proiektua, eta guk euren esperientzian oinarritu gara, hori Txorierrira ekartzeko. Getxoko lagunek azaldu digutenez, egitasmoa urterik urte sendotzen joan da eta arrakasta itzela dauka gaur egun. Horrela, bada, bertan Getxoko ikastetxe guztiek, edo gehienek behintzat, hartzen dute parte. Gurasoak eta umeak poz-pozik dabilta, Getxon... eta Zamudion ere bai. Lehenengo saioak egin eta gero, guztion balorazioa oso positiboa delako. Datorren urteari begira, baliteke egitasmoa beste herriren batean egitea.



Unibertsitatea,
inguruko gizartearekin
inplikatzeari bada.
erronkarako #prest

Irune Salterain,
Lehen Hezkuntza, 4. maila.

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 16
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO · APIRILAK 16
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MAIATZAK 9
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · APIRILAK 25
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · APIRILAK 25
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 23
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Etxeko sukaldaritza

Melokotoiak ardao baltzagaz

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- 4 melokotoi eder
- Litro bat ardao baltz
- 400 g azukre
- Laranja baten azala
- Kanela-zotz bat



Prestetako errea:

Melokotoiei azala kentzeko, ur irakinetan sartuko doguz 15 segundoan. Erdibitu egingo doguz eta hazurra kenduko deutsegu. Eltze baten, azukerea karamelizatuko dogu ur apur bategaz. Ardaoa, kanelea eta laranjaen azala gehitu eta egosten eukiko dogu 5-7 minutuan. Melokotoiak gehituko doguz eta beste 15 minutuan izango doguz egosten. Mahaira hotz aterako doguz, eta, gustukoa izanez gero, esne-gain harrotuagaz batera.

Tallarinak
espinakakaz

Osagaiak (lau lagunentzako):

- 400 g tallarin
- 4 kaiena
- 4 berakatz-atal
- 500 g espinaka
- Oliba orioa
- Sesamo-haziak

Prestetako errea:

Espinakak garbitu eta egosi egingo doguz. Ura kendu, eta gorde egingo doguz. Berakatzak xerratan moztu eta zartagin baten gorrituko doguz. Kaienak gehitu eta eragingo dogu. Ondoren, espinakak gehituko doguz. Ondo eragingo dogu, espinakak kaienen eta berakatzak gus-tua hartu daien. Bestalde, tallarinak egosiko doguz. Ura kendu eta espinakakaz nahastuko doguz. Sesamo-haziak botako doguz gainetik.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen konunitateak
Mantentze gutxi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu amaierako garbiketak
Baserriak
Zabur kileak

Besalde Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

t o k t a k EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izugatu Facebooken


TRIPPY
TABERNA

Espezialitatea:
GIN TONIC

Beheko kalea - DERIO

GOIALDE
Peluteria
Estetika

94 455 81 44
Angulu 2, Behea Larrabetzu-Bizkaia



Zer irakurri?

Labarreko itsasargia

Josune Aurrekoetxea Aperribai (Liluraturia)

Izenburua: Labarreko Itsasargia

Idazlea: Oihane Fernandez Mencia

Marrazkilaria: Alex Orbe Ferreiro

Argitaletxea: ELKAR (Xaguxar)

Orrialde kopurua: 81

Adina: 12 Urtetik Aurrera

Edizio urtea: 2013

Trena. Bakardadea. Horrela, bakarrik, sentitzen da hamar urteko neskatila bat bere osabarengana abiatzen denean etxeko arazoetatik ihes eginez.

Herriko itsasargiaz arduratzen den osaba Giuseppearen begirada triste eta iluna ikustean, farozain bakartia dela eta zerbait bere baitan gordetzen duela susmatzen du, bere bizitza sekretuz beterik dagoela. Gainera, itsasargi zaharraren egurrezko zutabe batean marratuta zen-



bakien segida bat aurkitzen du eta zenbakiak misterioa argitzeko gai dela pentsatzen du gazteak. Argitzeko nahian gizonaren bizitzan miatzen hasten da... Hasiera batean osabari galdetzea pentsatzen du, baina ideia azkar kentzen zaio burutik. Gizonaren ezpainetarik ez dela txintik ere aterako ziur dago. Bere buruari egiten

dituen galderak argitu nahi baditu, bakarrik abiatu beharko da erantzunen bila. Etxeko liburutegia, mesanotxean giltzapean dagoen tiraderan... txutxu-mutxuan aritzen da. Azkenean lortzen du helburua, hainbat sekretu airatzen dira. Liburuaren amaiera irekia da, irakurleari ezusteko bat emanez.

Istoria hau sentimenduz beterik dago, gehienak ezezkorrak (gorrotoa, amodioaren frakaso...) bakardadea nagusia delarik: gizon bakartia, hitz gutxikoa, itsasargiaren bakardadea, neska bakarra, bere burua umezurtza balitz bezala ikusten duena gurasoen banaketa dela eta...

Beste aldetik, aipatzeko da idazleak liburu honen deskribapenetan ematen dituen pintzeladak: herriaren, faroaren, etxearen, sentimenduen, protagonisten deskribapenetan. Margolari bihurtzen da; norberak irakurtzean koadroa irudikatu egiten du bere buruan.

Oihane Fernandezek 2013ko Lizardi Saria eskuratu du istorio eder honekin.



Erakusketak

Sondika

- > "Esbozos de arte" margolanak. Maiatzaren 5etik 28ra, erakusketa aretoan.

Derio

- > Udal tailerrak. Kultur Birikan. Aeromodelismoa. Maiatzaren 23an,
- > 12:00etan, Seminario atzean. SUBYKE taldeak antolatua.
- Gimnasia erritmikoa. Maiatzaren 30ean, 18:00etan, kiroldegian. Miragarri taldeak antolatua.

Zamudio

- > Marrazkigintza. Maiatzaren 12tik aurrera, Zamudiotorren.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Irati Goikoetxearen *Andraizea*. Maiatzaren 21ean, 19:00etan, Anguleri kultura etxea. Arrekikili eus-kara elkarteak eta Udalak antolatua.



Ikastaroak

Sondika

- > Sushi. Maiatzaren 15ean, 19:00etan, Kultur Aretoan. Altzora euskara elkarteak antolatua.
- > Bizikleta mantentzea. Maiatzaren 22an, 19:00etan, Larrabarrena parkean.

Derio

- > Blandiblu: polimero biodegradagarriak. Maiatzaren 21ean, 17:30etan, Kultur Birikan. Izena ematea: maiatzaren 7tik aurrera.

Zamudio

- > Sukaldaritza tailerra. Maiatzaren 16an, 11:30etan, liburutegian.

Lezama

- > Bularrak miatzen ikastea. Maiatzaren 29an, 19:00etatik 21:00etara, Kultura Aretoan.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > Logotipo lehiaketaren saria banatzea eta Kike Amonarrizen bakarriketa. Maiatzaren 22an, 19:00etan. Larrabetzun euskaraz elkarteak eta Udalak antolatua.

Irteerak

Derio

- > Ibilaldi neurtua. Maiatzaren 10ean, 10:00etan, Herriko plazan. Sariak ematea, 17:30etan. Untza mendi taldeak antolatuta.

Zamudio

- > Bizkargi. Maiatzaren 3an. Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Okina-Zaldiaran. Maiatzaren 17an. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Zamudio

- > San Isidro. Maiatzaren 15ean, 13:30etik aurrera: idi-probak, bazkaria, trikitilariak... Lurlangileen elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > Bizkargira igotzea. Maiatzaren 2an, 11:00etatik aurrera: igoera, ikurrinak herriko sarreretan eta bazkaria.
- > San Isidro. Maiatzaren 15ean, 11:00etatik aurrera: azoka, ibilaldia, bazkaria...

Musika

Derio

- > Mikel Urdangarin. Maiatzaren 8an, 20:00etan, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Musika Eskolaren emanaldia. Maiatzaren 7an, 19:30etan, Anguleri kultura etxean.
- > Amorante eta Joseba Irazoki. Maiatzaren 17an, 18:00etan, Hori Bai gaztetxean.
- > Txorierrri ganbara-orkestraren emanaldia. Maiatzaren 22an, 19:30etan, Andra Mari elizan. Musika Eskolak antolatua.

Txapelketak

Derio

- > Txorierrri-Urbe Kosta Txapelketaren finalak, aurrebenjamin mailan. Maiatzaren 9an, 11:00etan, kiroldegian. Arteaga FSTK antolatuta.
- > Emakumeen Briska Txapelketa. Maiatzaren 11tik 13ra, 17:00etan, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Asiatek + 1. Herri Lasterketa. Maiatzaren 17an, Teknologia Parkean. Izena ematea: maiatzaren 15a baino lehenago, udaletxean.
- > Balkoi Apainduen Lehiaketarako loreak banatzea. Maiatzaren 30ean, 10:00etatik 14:00etara, Bidekoetxe parkean.



Bestelakoak

Sondika

- > Uda programan izena ematea: maiatzaren 7tik 10era, Gaztetxean; eta maiatzaren 11tik 15era, Ludoteka lln.
- > Koparen finala. Maiatzaren 30ean, 21:30etan, Goiri Erdikoa plazan.

Zamudio

- > Uda Gazteak programan izena ematea: maiatzaren 29tik ekainaren 10era arte, Gazte estazioan.

Lezama

- > Uda programan izena ematea: maiatzaren 18tik 29ra, liburutegian.

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonoa: 944 543 705

Albaitaritza

HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkai)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txorierrri etxebidea 5-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euskalnet.net

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Derio

200€ nahi duzu?



Elkarteko kideak diren bi dendatan egindako
10€ baino gehiagoko erosketengatik, 200€-ko
5 txeken zozketan parte hartuko duzu

MAIATZAREN 1ETIK EKAINAREN 29RA

Zozketa ekainaren 30ean, 20:30ean, egingo da Kultur Birikan.